




B



9 788479 929695

PIZZAN-CO-RA

AITITA-AMAMEN JAKITURIA

3



# AITITA-AMAMEN JAKITURIA



A. Martzel Andrinua

## AITITA-AMAMEN JAKITURIA

(Bizkaieraz eta batueraz)

*Aiton-amonen jakinduria 2 batueraz  
Aitita-amamen jakitura 3 bizkaier*

AITITA-AMAMEN  
JAKITURIA

A. Martzel Andrinua

---

AITITA-AMAMEN  
JAKITURIA

---

Irudiak:

*Hilario Urkia*

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dau.*

*Alaxe bearturik  
eguneko lanak,  
euren bizimoduan  
guztia emonak.  
Leen jaiota ta gero  
jaioko diranak,  
bizian gora joan  
bear dabe danak.*

*Guztiontzako bardin  
gitxi gorabeera,  
zarrak ez gara baina  
urteak aurrera.  
Ia irixi arren  
ilunabarrera,  
ilargitan ederto  
ibiliko gera.*

Yon Azpillaga.



Agur gozo bat eskeindu nairik  
izaera bikainean,  
sentimentuak bat egiten dau  
biotz eta mingainean.  
“Bizian gora” doanak badau  
pixu bat bere gainean,  
ondo tratatu bearra dago  
merezi leuken ainean,  
bizipoz orrek iraungo dau  
irugarren adinean.

Gurasoen izate ori  
mundu onetan or dago,  
gustora bizi izan ezkeru  
leku oberik nun dago?  
“Bizian gora” doana beti  
urtetan ere gorago,  
guztiok orrek lotuko gaitu  
orain edo geroago,  
alkar maitatzen jakin ezkeru  
naiko zorion badago.

Mugartegik bihotzez.

## ZURETZAT

Oraintxe urte bi argitaratu neban “Zu  
ta ni Biok” liburutxo, “Bizian gorako”  
kristau jubilatuei eskeiñita. “**Aitita-  
Amamen Jakituria**” bestearen  
osagarri dozu.

Gure jubilatuen batzarraldi eta  
ibillaldietan ainbat bertso-papel erabilli  
izan ditugu, eta bai pozik etxera eroan  
be, gero bakarrean edo taldean  
kantatzen jarraitzeko. Baiña papelaren  
papelez nastuta ibilli oi da jente  
nagusia. Eskatu be bai sarri: zergaitik  
ez dozuz danok liburutxo baten  
batzen?

Orra gaurko nire eskeintzaren nundik  
norakoa. Baiña, euskaldunon artean,  
bertsoak kantatzeko izan oi dira. Egin  
be egin dogu amaika ekitaldi goxo joan  
daneko urteotan! Baiña ta bertso-  
-musikak zelan gogoratu? Batzuk  
kassetetan jaso ta etxera eroan be egin  
ditue. Ori dala-ta, liburutxo onek bere  
lagungarri bat daroa: bertso-doiñuen  
kasseta. Bertso bakoitzaren asieran

emoten jatzuz zer bi: bertsoaren lumeroa eta doiñua, Euskalerriko jubilatuen lagun aundi diran Aspillaga eta Mugartegi bertsolariak abestuta.

“Zu ta ni Biok” liburutxoa erroskillak lez banandu da, bai bizkaieraz eta bai batueraz. Esku-artean erabilli dabenak ao batez diño: “Diñoan dana ulertzen dogu eta dan-dana geuretzat esanda dago, geuri jazoten jaku”... “Nik aldean darabilt alde guztietara”. **Aitita-**

**-Amamen Jakituria** be gogo ta era bardiñean doatzu: letra aundiak erabilliz, euskera al danik-eta errezena, azken aldiko aldaketak oraingoz eta emengoz baztarrean itziaz. Gogo ta asmo bakarra auxe da: Gure anai-arreba jublatuak bape eragozpen barik eurakandu dagiela bertso-liburutxo au be; bertso-doiñuak be errezenak eta erabillienak dituzu, gure nagusientzat beintzat. Orregaitik, aurkibidean, beste zenbaki bat aurkituko dozu «( )» artean: “Zu ta ni Biok” liburuko gai bakoitzaren zenbakiari dagokiona da; olan, otoitz egin ondoren, bardin antzekoak esan

zeinkioz Jaunari bertso-kantari. A ze ederto!

Lau atal nagusitan bananduta dator liburutxo au:

Lenengoa, “Geuk ikusi-ikasiak”: jubilatuaaren begirada batzuk atzerantza, egindako bideetara; baiña garrastasun barik ondorengoei kontatuz.

Bigarrena, “Gure kredoa”: Aitita-amamak aurreko gizaldietako pentsakera eta bizikera jakin batzuen testigu ditugu: bai giza-bizitzan, bai fede-arloan. Euren sinismenaren mamiña aundi-aundika daukazu.

Irugarrena, “Olgetan-benetan”: gure nagusiak, euren bizitzako milla ta bost neke ta arazo ta guzti be, umore oneko jentea izan da. Ez dira errez pot egiteoak izan. Orra bizitzako atal barregarri banaka bat.

Laugarrena, “Zarbarrituak”: jakiña, emen agertzen jatzun aitita-amama ez da edozelako bat, “zarbarritua” baiño;

*“Bizian gora” deritxon lexiban ondo garbitu ta barriztua dozu. Urletik urtera, eta beste kristau jubilatu askorekin batera, aldatzen aldatzen joan da bere eritzi, pentsakera eta egikeretan.*

*Ez noatzu geiegi luzatzen. Geratzen diran utsuneak zeuk beteko dozuz ondo baiño obeto be. Eskerrak emotea zor dot, azken baten: Azpillaga eta Mugartegi bertsolari lagunei, gogorik onenagaz laguntza eder au eskeiñi deuskuelako; eta zeuoi, “Bizian gorako” jubilatu lagunoi, zeuon egarriari esker, pozik eralgi ditut ordu batzuk liburutxo au moldatzen. Benetan, zeuok eraginda egin dot; beraz, zeuona da. Bekizue gozagarri zartzaroko urteetan. Ori olan balitz, neu be pozago eta... gazteago, bearbada.*

*A. Martzel*

## I

### GEUK IKUSI-IKASIAK

1

GURE ETXEA

1. Bada etxe bat errian  
leku txoko ederrian,  
enparantza baztarian.  
Jubilatuok an batzen gara  
euskaldun lege zarrarian;  
giro goxo pozgarrian  
alkar poztu bearrian,  
“Gure Etxea” barrian.
2. Lengo eskola-lagunak  
ainbat urte ditugunak,  
geienbatzuk euskaldunak:  
alkar-lagunduz, betetzen doguz  
guk zartzaroko utsunak;  
argitzen dira illunak,  
aixkidetzen ezagunak,  
eta laburtzen egunak.
3. Beti alkarren onduan,  
sarri asarre-moduan,  
asi ezkerro jokuan.  
Igerri barik agertzen dira  
tranpak bear dan orduan!  
Zer ete dabil kolkuan?  
Igerren da berbaruan,  
ez da giro inguruan!
4. Ibiltzeko naiko baldar,  
jokorako bixkor samar,  
iñor ez da orduan zar...  
“Gure Etxeak” asmatzen ditu  
eskurtziño eta abar:  
or doaz baztarrrik baztar,  
munduko bidetan zear;  
“naikoa dok” esan bear.
5. Sarri zelango afanak:  
erakusten eskulanak,  
ara ta ona joanak!  
Zarren artean asko ditugu  
esku-abillak izanak.  
Or beterik orma danak,  
emonak amama zanak...  
Zelango artista famak!
6. Sendagille famatuak  
jatorkuz debaldekuak,  
zarrentzako prestatuak.  
Jimnasia-ta izaten doguz  
kurtsillo ta olakuak...  
Baiña guk jubilatuok  
naiago karta-jokuak  
eta jan-edanekuak!



7. "Gure Etxea" danona,  
Udaletxeak emona  
geu zarrontzako dagona.  
Emen bardin da aberats, pobre,  
andra izan naiz gizona.  
Bada nok gorde txanpona,  
nok zuzendu martxa ona:  
"Batzordea" deritxona.
8. Lengo oitura zarrera  
guk maite dogu euskera,  
sinismenagaz batera.  
Zeruko Aita, begira eizu  
jubilatuon gaiñera;  
zatoz guri laguntzera,  
jubilau baten antzera,  
zeurea dan "Gure Etxera".



2


EUBAKO ALKAR-EGUNAK

1. Esku baten makilla,  
bestean maleta,  
Euba aldera noa  
deia daukat-eta.  
Lendik egon diranak  
ain dagoz beteta...  
Neuk be ez galdu nai  
olako "banketa".
2. Alderdi askotako  
jente nagusia,  
ez da esatekoa  
nik an ikusia:  
norberak bizi bear  
Eubako grazia,  
ez jat iñoiz aztuko  
bertan ikasia!
3. Batetik berbaldia,  
ba zan zer esana;  
gero talde txikian  
ausnarketa lana.  
Danok anai-arreba,  
danok bardin dana;  
arrezkero ni ez naz  
ara joan nintzana!



4. Baztarrean illetaz  
amaika jubilau!  
Euren buruari kolpez:  
“Niriak egin dau”.  
Ai, balekie ondo  
zer dan Eubako au!  
Konbibentzi orrexek  
ni zarbarritu nau.
5. Orain Bizkai guztian  
ditut milla lagun,  
noiznai alkartzen gara  
jai eta astegun.  
Adiskideak doguz  
onak ta edonun,  
kristau jubiladuok,  
ze grazi daukagun!
6. Len illun nengoana  
gaur argiz beterik,  
len baztarrean lotan  
ta gaur asti barik...  
Eskurtziño, batzarrak,  
ez daukat besterik...  
Ni gaur nabillen martxan  
ez dabil gazterik.

7. Zartzaroan gitxien  
uste nebanean,  
Jesusek ipiñi nau  
bide zuzenean.  
Etorri zaitez, lagun  
zeuk nai dozunean,  
eta ondo ibilli  
danon izenean!



3

URREZKO EZTEGUETAN

1. Kepa ta Yone aurkitzen dira  
urrezko ezteguetan,  
maitasunezko buztarri baten  
berrogei ta amar urtetan...  
Gazte-denporan maiteminduta  
jarrai betiko ustetan,  
millaka gorabeeretan,  
Bein betirako "baietz" esanda  
eutsi leengo esanetan;  
or agertzen da lengo "baietza"  
emon ebela benetan.
2. Seme-alabak pozetan dagoz,  
au egun zoragarria!  
Bedeinkatua eurok bizira  
sortu ditun iturria!  
Au da frutua, bikote onek  
maitasunez ekarria  
eta bidean jarria;  
seme-alabak dira benetan  
maitezko urre gorria,  
esker onean txaloka dago  
maite zaituen erria.
3. Erri osoak ospatzen dau gaur  
zeuokaz jai atsegiña,  
bion omenez bada gaur naiko  
dantza, txalo, tanboliña.  
Danen aurrean dirudizue

- errege ta erregiña,  
larrosa ta klabeiña...  
Berrogei ta amar urtetan zear  
zuen "baietzaren" fiña!  
Alkate jaunak jarri deutsue  
urre gorrizko domiña.
4. Zuen ondoan poz pozik dagoz  
gaur jubiladu lagunak,  
bikote batzuk bizirik eta  
geientsuak alargunak.  
Au ikusteak biziagotzen  
ditu maiteen utsunak,  
aspaldi bai dira junak...  
Eriotzea bakar bakarrik  
gainditzen dau maitasunak;  
guztiok poztu zagiezala  
gaurko maitasun-egunak.
5. Kepa ta Yone, aitita-amamak  
pozez alkarri begira,  
berrogei ta amar urteko gauzak  
ekarriaz memorira.  
Maiteminduta jarraitzen dabe,  
orra zer poz ta dizdira,  
guzurrezkoak ez dira!  
Maitę dirala laztan goxotan  
agerten dabe argira,  
alkarregana urreratuaz  
zelan erleak eztira.

6. Gaztenak baiño gazteago Zu,  
zarrenak baiño zarrago,  
etengabeko bizi-iturria  
Jainko Aita, Zeugan dago.  
Berrogei ta amar urtetan biok  
edan dogu ainbat trago,  
Zeuk ase gaituzu bapo!  
Geiago bizi ta egarri be  
gara gero ta geiago,  
orain arteko guztiagaitik  
o Aita, eskerrik asko!



4

KRISTAU JUBILATU BATEN  
JAKITURIA

1. Aspaldi baten gure artean  
bada odol ta negarra,  
gorrotozko su-garretan dago  
Euskalerriko baztarra.  
O anai euskaldunak  
oneik dira egunak!  
Izan adore indarra.  
Oraintxe dogu mai-inguruan  
danok alkartu bearra.
2. Gizon guztiok anaiak gara  
auxe da gure oiñarri,  
anai-arreba lez maitatzea  
ez al jaku pozgarri?  
Alkargana zabaldu,  
ez gero iñor zapaldu...  
Zintzo lagundu alkarri.  
Alkar-laguntzan daukagu poza,  
gaitezen onen egarri.
3. Eguneroko bizitzan doguz  
alaitasunezko tantak,  
egualdi ona ta osasuna  
ume-jolas, gazte-kantak.

Tantaka da ezta,  
amesa da bestia;  
uxa guzurrezko plantak!  
Neurriz biziko bagiña, agur  
gure arteko demandak.

4. Gizon guztiok berez daukagu  
pekatuaren emoa,  
barrutik ondo garbitu ezik  
gizona da berekoa.

Maite daigun Jainkoa  
eta bardin urkoa;  
bota garraztasun-loia.  
Eta Jainkoak emongo deusku  
alaitasunaren doia.

5. Nazareteko Jesus gizona

axe bai gizon alaia!  
Esker onez ta kantuz biotza,  
gizon guztien anaia.  
Berbaz eta egitez  
gaixo, pobreak maitez,  
danentzako onginaia.  
Ikasi daigun al dan ondoen  
Jesus onen ikasgaia.

6. Jesus Jaunaren jarraitzaillea  
bizi da itxaropenez,  
berbiztu danak betetzen dau-ta  
Beragandiko almenez.  
Santu triste ta larri  
beti da barregarri,  
lendik esaten dabenez.  
Jesus gurekin egon dago-ta,  
zelan gu bizi aienez?

7. Zigor, espetxe, oiñaze, miñak  
olakorik etortzean,  
kristau bagara, ez itzi Jauna;  
iraun gogor otoitzean.  
Ez biotzak gogortu,  
sinismena autortu  
larrialdi bakoitzean.  
Alaitasuna ez dau faltako  
olakoak biotzean.

8. Munduan zear zabaldu daigun  
zorionaren azia,  
alde onetik erakutsiaz  
dana dalako gauzia.  
Erein alaitasuna,  
ori da osasuna  
ta jasò biotz jausia.  
Olan jokutzen dabenentzat da  
Jaungoikoaren grazia.



9. Neke-lorretan fedez jokatu  
Jesus Jaunari begira,  
Aren bideak fededunentzat  
jarraibide onak dira.  
Zergaitik itzi Meza?  
Bai protesta erreza!  
Minduta ez erretira.  
Bear-orduan joan bear da  
alaitasun-iturrira.
10. Aita Jainkoak seme-alabok  
pozik ikusi nai gaitu,  
bere Semea bialdu euskun  
eta gizonok alaitu.  
Alegiñak alegin  
alkar alaitzen ekin,  
ez gero iñoiz gogaitu!  
Zorionezko zerura arte  
danok ekin ta jarraitu!

5  
BETI IKASTEN

1. - Aitita-amamok gatoz  
gaur bertso-kantura,  
- "Maritxu, nora zoaz"  
kantuen soiñura.  
- Guk ekingo deutsagu  
dakigun modura  
- Jentiaren esanak  
zer deusku ardura?
2. - Lengo kontuak dira  
nai eta eziña  
- Naiko lan zan betetzen  
etxeko topiña.  
- Zartzaroan bearko  
egin alegiña  
- Aita San Pedrok eingo  
deusku esamiña.
3. - Jubilatuak badau  
nun eta zer landu  
- Eldutasun betea  
zelan beragandu.  
- Ezertxo egin barik  
ezin da ekandu  
- Obea izateko  
ez da iñoiz berandu.



4. - "Gure aitita-amamak  
doaz eskolara"  
- Au ikusita, ilobak  
ze barre algara!  
- Jubilauak bai baiña  
tontuak ez gara...  
- Upel utsa baiño oba  
beterik kikara.
5. - Orain ikasi dogu  
zer dan jimnasia  
- Azurrak bigundu ta  
artzen arnasia.  
- Ezergaitik ez dogu  
galduko klasia  
- Ez dok errez makurtzen  
gure errazia!
6. - Gure eskolia da:  
"Ikusi ta ikasi"  
- Or ez dakigu zer dan  
ez "piper", ez "sasi"...  
- Zorionean giñan  
mundu zear asi!  
- Gaur ezagutzen dogu  
erdia bai kasi.

7. - Ez mosu ta ez zirri,  
dana zan pekatu  
- Eta ezin gustora  
baltzeoz dantzatu.  
- Sasoi onean jakuz  
kateak askatu!  
- Gelditzen dan apurra  
ganoraz txastatu.
8. - Gure artean noiznai  
bertso ta txistiak  
- Lana emoten deusku  
buruz ikastiak.  
- Nori ez emon poza  
ori ikustiak?  
- Ikusita nok esan:  
"Jubilau tristiak"!
9. - Eleizan egon gara  
geldi eta mutu  
- Zorionez ze argik  
gaituan ikutu!  
- Itzi doguz betiko  
bildur ta ezkutu  
- Emondako baietzaz  
ez gara damutu.

10. - Ez genduan ikasi  
zer dan atsedena  
- Nok lan geiago egin,  
ori zan onena.  
- Alegindu gaitezan  
aldatzen ordena.  
- Ondo jan, ibilli ta  
lan egin azkena.
11. - Eleiz barruan geldi  
luzaro egonak  
- Aspaldion aldatu  
gaitu Barri onak.  
- Anai-arreba gara  
gu andra-gizonak  
- Agaitik bizi gara  
alkarri emonak.
12. - Jubilatuak ditu  
ainbeste balio  
- Etxe ta kanpo daukaz  
mila serbizio.  
- Beti ezetz dinonak  
esan lei: "Adio"!  
- Zor dana emon bear,  
zer erremedio!

13. - Orra garbi esanda  
gure leziñoa  
- Erakustea izan  
da intentziñoa.  
- Gauza ederra dogu  
jubilaziñoa  
- Jainkoak emondako  
bedeinkaziñoa.
14. - Bizitzan ikasia  
da gure eskola  
- Aprobaten erreza  
ez da izan inola.  
- "Ikasten" iraun daigun  
ala edo ola  
- Olakoari Jaunak  
lagundu daiola!
15. - Ikastolan gabiltz  
ainbeste denpora  
- Bere izen gozoa  
da "Bizian gora".  
- Gaur konbite egiñaz  
gatörtzuz ondora  
- Zeuretzat deia da-ta  
ez bota albora.

16. - Burutu daigun ondo  
lanik ederrena  
- Geure burua landu  
kanpo ta barrena.  
- Apustu au bardin da  
gazte ta zarrena  
- Irabazi al daigun  
koroï ederrena.
17. - Jubilaun Zaindari  
Simeon eta Ana  
- Jesusen zain zengozen  
bikote lastana.  
- Jaritxi eiguzue  
grazi eder bana  
- Zintzo bete al daigun  
esan dogun dana



6

AITITA-AMAMAK ETA ILLOBAK

1. Illobak:  
Geure aitita eta amama,  
biotz biotzez egunon!  
Osasun bakez gure Jainkoak  
gaur zagiezala jagon.  
Jaso illoben lastan beroak,  
izan poz eta zorion,  
zuen ondoan lagun egiten  
nai dogu apur bat egon.
2. Aitita-amamak:  
Bai pozgarria, illobatxoak,  
zuen goizeko agurra!  
Pozez beterik jartzen dozue  
gaur gure biotz samurra.  
Zuek uxatzen dozue gure  
bakardadeko bildurra;  
zuen lastanaz egun luzea  
egiten jaku laburra.
3. Illobak:  
Ortxe zagoze bakardadean  
edo sukaldean penaz,  
jardun ta jardun, fedez nastuaz

aienak "Aitearenaz".

Kurutz astuna alpadan gora  
daroazue kemenaz,  
arindu gura deutsegu gaur  
abestirik politenaz.

4. Aitita-amamak:

Bizitza bera da, umetxoak,  
liburu eta eskola,  
zuen aitamen guraso gara  
ez aztu gero, ñola!  
Pozik ikusten dogu zuekan  
gaztetzen gure odola,  
gure negarra zuekan dago  
irriparra dariola.

5. Illobak:

Gora aitita, gora amama  
guretzat maitagarriak!  
Ezti-tanta bat, gozatutzeko  
gaur zuen biotz larriak.  
Negu latzari jarraitzen deutso  
loretsu udabarriak,  
aleginduko gara betetzen  
zuen gogo, egarriak.

6. Aitita-amamak:

Eskerrik asko, illoba maite,  
zatoz gure besartera,  
gura geunkena, zuen bitartez,  
beti jarraitu aurrera.  
Zaindu eizuez aitita-amamen  
sinismena ta euskera,  
orain ta beti zintzo jokatu  
Jaungoikoaren legera.

7. Illobak:

Zuen ondoan jaso ditugu  
makiña bat ikastaro,  
zer-ikasirik asko dogu-ta,  
zagoze ementxe luzaro.  
Gure Jainkoak emon beizue  
poz ta grazia oparo,  
aitita-amamak, eskerrik asko  
ta ondo ondo igaro.

8. Aitita-amamak:

Aitita-amamak eta illobak  
ementxe dagoz kantari,  
alkar artuta esan dagigun:  
gora ta gora Jaunari!  
Bere eskuan ipinten doguz  
gure gogo ta gurari,  
eta guztioi emon daiskula  
zeru eder bana sari.

AITITA-AMAMEN AGURRA

1. Seme-alaba laztanak  
eta senide diranak,  
jaso gaur gure esanak  
eta zintzo gorde danak.
2. Guk badogu gure Erria,  
izena Euskalerria,  
Euskera maitagarria  
da gure ezaugarria.
3. Beste errien antzera,  
guk be badogu izkera:  
Euskalerrian Euskera  
len, orain ta aurrera.
4. Ez gero Euskera galdu  
ta gitxiago zapaldu;  
al dan guztian zabaldu,  
ez zaitezela makaldu.
5. Naiz izan iru edo lau,  
geurea dogu beti au;  
ez da euskaldun, ez kristau  
Euskera maite ez badau.

6. Esan bai: "Gora Euskera",  
ta tituluak atera;  
baina jo ta ke erdera;  
olan ez goaz aurrera!
7. Zaindu gure ondasunak  
maite izan ditugunak:  
izan beti euskaldunak  
ta gaiñera fededunak.
8. Euskaldun errazia  
ez da azurren trazia;  
Euskera da aranasia,  
gure sena ta grazia.
9. Besteak errespetatu,  
geurea dana maitatu;  
eta iñor ez ondatu,  
danen gaiñetik ondradu.
10. Laster da gure azkena,  
artu gauzarik onena:  
Jaunaren Bedeinkapena,  
goratu bere Izena.



8

AITITA-AMAMEN ESKOLAN

1. Atzo, gaur eta biar,  
beti neke-miña.  
Ume, gazte ta zarrak  
illeta bardiña.  
Len, orain eta gero  
betiko dotriña:  
neke-miña geugandik  
aldendu-eziña.
2. Nok ete dau errua,  
Jaungoikoak Berak?  
Batzutan iñok eta  
bestetan norberak.  
Oker egin ezkeru  
munduko aukerak,  
ortik datoz miñezko  
milla gorabeerak.
3. Asmo txarrez etorri,  
naizta berez sortu,  
eraz artu ezkeru  
onik asko lortu.  
Jaunaren deia dozu  
ez biotzez gortu;  
olakoan amaika  
oi dira bixkortu.

4. Jaunak ez eban sortu  
gure neke-miña,  
Jesusek lez onartzen  
egin alegiña.  
Izan gura badozu  
ekintzaille fiña,  
bide bakarra dala  
eukizu jakiña.
5. Zigorrak ta zauriak,  
iseka ta txistu...  
Nor ta zenbat zarean  
zuk ortxe egiztu.  
Alai ta sendu iraun,  
maitasunez biztu:  
"Tomas" askok zukan be  
baietz gaur sinistu!
6. Zenbat maitatzen dozun  
nai badozu jakin,  
ainbat sufritzen dozu  
neurria da bardin.  
Maitatzean sufridu,  
beti ez da atsegin;  
sufritzean maitatu,  
egizu alegin!

7. Bizi-penitentzia  
badago naikoa!  
gizona onduteko  
da sekulakoa.  
Baiña kontuz ibili:  
ez mindu urkoa,  
on egiñaz bentzidu  
zure kontrakoa.
8. Nai badozu, aixkide,  
egiz zoriona,  
jakin egizu ondo  
au zeugan dagona.  
Neke-miñen aurrean  
zaindu gogo ona,  
jokatu bildur barik,  
ori da gizona!
9. Ikusiak ikusi,  
au ezin ukatu;  
eta bizitzan zear  
sarri gogoratu:  
au dala "gau txar baten  
penazko ostatu",  
ez, ez emon leiken baiño  
geiago eskatu!!!

10. Artu gogoan, seme,  
aititen eskola:  
kurutzetik ezin da  
igesi iñola.  
Frutua nai badozu,  
iñausi arbola...  
Frutua nekeari  
lotuta dagola.

9

NAI BAINO GITXIAGO,  
AL BAINO GEIAGO

1. "Mundu barrian gizon barria"  
esakera biribilla,  
gizona beti ibilliko da  
gizon barriaren billa.  
Asmauala izan nai,  
nai danik ez, jajai...  
Alperrik abil, mutilla!  
Gaurko gizona illeta joten  
dirudi dagola illa.
2. "Au da mundua! Dana galdu da!"  
Auxe da gaurko berbeta,  
ume, gazte ta zarrak be bardin  
garraztasunez beteta.  
"Ez dago zeregiñik,  
zertako alegiñik?  
Dana da alperrik-eta."  
Au da gizonak, bizi dirala,  
ospatzen daben illeta.
3. Jolas ta droga, jan ta edanak  
gizonaren atsegiña,  
emonak emon, au gizonaren  
bete ta ase-eziña!  
Millaka aurrerapen

- eta au da ondamen!  
Eta ezin kendu miña.  
Ekin ta ekin, ez ete da au  
alperriko alegiña?
4. Norbera ona dala jakiñik  
eta besteak errudun,  
guztiok ori uste ezkeru,  
alkar garbitzera, pinpun.  
Bestai jota tiro,  
norberagaz astiro...  
Zer jokera sortu jakun!  
Itxura onak egin bai, baiña  
beti betoskoak astun.
  5. Gaurko giroa agiri dago  
edonungo batzarretan,  
dana da txarra, dana alperrik,  
bardin gazte ta zarretan.  
Birao ta zarata  
zelango zalaparta!  
Amòrruzko sugarretan...  
Dana len baiño txarrago izteko  
amabitik amarretan.

6. Ezker-eskuma ta erdipurdi,  
gaur dana da politika,  
"ortik ei dabiltz, au ei diño"  
zelango erretolika!  
Tupamaro ta kinki,  
asmauala ipinki,  
mundu osoa zatika.  
Batzuk illeta, bestek maiñak  
danak alkarri arrika.
7. Gazte giñala, bear asko ta  
jan-edanetan apurra,  
negu ta uda lanez etenda  
dantzatu bear atxurra.  
Baiña bizi pozago,  
ni gaur onetan nago;  
au bizimodu txakurra!  
Len lez orain be, mamiña gozo  
ta iñok nai ez azurra.
8. Geure bizitzan ikasi dogu  
orain emen diñoguna:  
munduan ezerk ezin bete lei  
gure barruko utsuna.  
Bizi sinismenean  
ta bide zuzenean,  
gorde neurri ta zentzuna.  
Jaunak bakarrik emon leikigu  
gure zoriontasuna.

10

**BIZITZAKO GAILURRETIK BEGIRA**

1. Aiene ta oiene  
betiko illeta,  
konformatu eziña,  
besterik ez da.  
Danok nai gendukena  
etenbako festa,  
zerbait falta orduko  
jo ta ke protesta:  
asarrez kopeta,  
biotza erreta  
gorrotoz beteta,  
eta ze berbeta?  
Obeto bearrean  
au da nasketa!  
Ze gatxek galdu deusku  
guri kasketa?
2. Gaurko gizonik asko  
dago pot egiña,  
zoriontsu izan nai  
eta eziña.  
Errege zalakoan  
edo erregiña,  
kixkaltzeko zorian

dago errekiña.  
Ezin jaso miña,  
errez irakiña;  
au, ori bagiña...  
Amets atsegiña.  
Eta ezin iruntzi  
egi gordiña.  
Auxe da sartu jakun  
gatx ta gorriña.

3. Eskubideak beti  
arturik goguan,  
ez da giro izaten,  
kontu orduan!  
Artzekoak daukaguz  
sarri akorduan  
eta lepoa jaso  
emoterakuan.  
Artu au kontuan:  
txori bat eskuan  
obe da munduan,  
ez milla zeruan.  
Garraxi ta aitxakiak  
gorde kolkuan  
eta al bait lasterren  
sartu jokuan.

4. Unibertsitaterik  
izan genduana,  
bizitzan sortu jakun  
bear-izana.  
Eskolarik onena  
egunero lana,  
eta geure guraso  
ta zarren esana.  
Ai ene laztana,  
orixe zan dana,  
ez berez emana,  
nekez sortzen zana.  
Au da artu genduan  
zeruko mana;  
nire maixurik onena  
aitita zana.





11

AITITA-AMAMAK URTE BARRIETAN

1. Aititamamak gara  
alkarri berbetan,  
urte bat ikustean  
bere azkenetan.  
Urte zar ta barriak...  
Ori da amesetan.  
Urte barririk ez da  
larogei urtetan.  
Iñoiz baiño zarrago  
Urte Barrietan.
2. Beti gagoz miñetan  
biotz edo buru,  
guretzat joan ziran  
dantza ta inguru.  
Jarri, etzun naiz jagi,  
ez gagoz seguru,  
errezuen artean  
zotin ta zizpuru...  
Zarra zer dan ikasi,  
ona geu liburu.
3. Gure txori ta lorak  
artu dabe igesa,  
beste soiñurik ez da:  
eztul ta inkesa.  
Lengo baten aititak

- egin dau amesa:  
loteria jausita  
ei zala markesa...  
Zertxobait zalakoan  
ta gero bapeza!
4. Gaur San Esteban dala  
biar San Bixente,  
gazte dan artian bat  
badabil dexente.  
Natibitate gauaz  
dantzan ainbat jente;  
Iñuxente egunez  
ezin egon tente,  
ibili be ba gabiltz  
amaika iñuxente!
  5. Larogei urte bete,  
beteak balira...  
Orain dakit geienak  
utsik joan dira.  
Gaztetan zoro zoro  
milla jira-bira;  
gaur ezer eziñean  
lenari begira;  
zarrak eroan ezin  
ta Urte Barrirra?

6. Sasoiko nintzarian  
ni nintzan mutilla!  
Dirua ta jolasa,  
lagunak eun milla.  
Gaur lagunik bajatort  
neu lako kaxkillla,  
lagunak eta Jainkoa  
danak kontu-billa;  
bururik ez daukanak,  
a zer lasto-pilla!
7. Aurtzaroko urteak  
izan ziran labur,  
gaztarokoak, barriz,  
ain goxo ta samur...  
Zartzarokoak orra  
azal eta azur;  
ainbeste urtek olan  
jarri nabe makur;  
nireak egin dau-ta  
ni banoa, agur!
8. Urte zarrak barrizten  
ainbeste denpora,  
ez jat txorta makala  
etorri lepora!  
Naiz emen txarto egon,


- nok nai dau kanpora?  
Bertokotu baiño len  
joan bear kanpora;  
naita be ezin biurtu  
barriro lengora.
9. Bein neure buruari  
begira bakarrik,  
ispillu-aurrean ta  
gaiñera itzarrik:  
barrezka asi nintzan,  
eta alan bearrik,  
ezin atondu ulerik  
eta ez bizarrik,  
ez dot iñoiz ikusi  
ain gauza edarrik!
10. Belenen jaio ziñan  
Enetxo laztana!  
Makuluén gaiñean  
nator gaur Zugana.  
Urte zarrez beterik  
aulduta dan-dana,  
auxe da gaur eskatu  
gura' deusudana:  
"Emon Urte Barri bat  
zartuten ez dana".

**II**  
**GURE KREDOA**

12  
BIZIAN GORA

1. Emen gatortzuz, Jauna,  
gaur zure ondora,  
alkarren lagun gara  
ainbeste denpora.  
Zure taldea gara  
gu Bizian Gora,  
ez al gagoz Zu ta gu  
alkarraz gustora?
2. Zugaz lagun gara ta,  
alkarraz be lagun,  
lagunarte oberik  
ba ete da iñun?  
Ain pozik ibilteko  
zer jazoten jakun?  
“Bizian Goran” gabiltz,  
zer grazi daukagun!
3. Zugan sinisten dogu  
Zu maite zaitugu,  
geure lagunartean  
zaitut ezagutu.  
Benetan ona zara,  
-ain maite gaituzu...!  
Gero ta lagunago  
gara Zu ta gu.

4. Batzuk gazte sasoiko,  
gu onezkero zar,  
baiña zure soloan  
bada naiko bear.  
Jubilatuak gara,  
baiña oraindik azkar,  
emen gaukazuz, Jauna,  
ta Zeuk egin dear.



13

GURE SAKRAMENTUA

1. Lenagoko kontua:  
"Artu Untziñoa  
t'agur funtziñoa"!  
Au da Jaunaren grazi  
ta parkaziñoa.  
Bakardadeko lagun  
ta salbaziñoa,  
ondo eroan daigun  
geure pasiñoa;  
au da zartzarorako  
bedeinkaziñoa!
2. Zartzaroko kurutza  
berez da astuna,  
au makaltasuna!  
Untziñoak dakarsku  
ondora Laguna.  
Jesus da Eguzkia  
argitzen gaituna,  
Bera bakardadean  
Aixkide kutuna;  
biok goaz atontzen  
Betiko Eguna.
3. Zartzaroak bildurrez  
jartzen gaitu sarri  
estu eta larri;  
ta Untziñoak deusku  
bakea ekarri.

- Urtepean egonda  
bizia egarri,  
Jesus Salbatzaillea  
gure asegarri;  
ez deutsagu bildurrik  
guk biok alkarri.
4. Gero ta laburrago  
zarraren pausoa  
eta penosoa;  
geu bixkortzeko dator  
Aixkide gozoa.  
Beragan jarri dogu  
guk uste osoa,  
zabal dakusguz bere  
biotz ta besoa;  
ziur gagoz geurea  
da paradisoa.
  5. Utziñoa irutan  
ni artuta nago,  
-au ez zan lenago!  
Eta ikusten nozu,  
ona emen bapo.  
Arrezkero bizi naz  
gero ta pozago,  
ta osasun ohea,  
untzea or dago.  
Eriotza Jaunagan  
betiko akabo.



6. O Jesus, Kurutzean  
il ziñan Golgotan  
neu salbatzekotan;  
au sinisteak pozez  
jartzen nau malkotan.  
Olan dala jakinda,  
zelan bizi lotan?  
Zeugaz bizi gura dot  
zartzaro gozotan,  
laster ikusi arte  
betiko Pazkotan.

14

**AITITA-AMAMEN OSPAKIZUNAK**

1. Emen alkartu dira  
erri ta eliza,  
biak aitita-amamei  
zor deutse bizitza.  
Gaur agertu nai dogu  
euren nagusitza,  
orren erakusle da  
emengo ekintza.
2. Aitita-amamak dagoz  
lenengo lekuan,  
euren seme-alabak  
datoz urrenguan.  
Illoba ta birloba  
illada senduan,  
or ikusten da nor dan  
“nagusi” munduan.
3. Au da egun ederra  
ospatzen doguna  
goraldu nairik gure  
aitita t'amuma.  
Eurok ikusteagaz  
au da poztasuna!  
Jaunak emon daiskula  
bake osasuna.

4. Aitita-amamak dira  
etxeko pozgarri,  
eurak zelan zainduko  
beti gabiltz larri.  
Gaur guztion erdira  
ditugu ekarri,  
eta zor deutseguna  
esker onez jarri.
5. Gauza ederragorik  
ezin da ikusi:  
gurasoen guraso,  
erriko nagusi!  
Gurasoak goraldtu,  
au ez da itxusi;  
oitura eder oni  
beti goian eutsi.
6. "Gurasoak maitatu  
eta ondo zaindu",  
aintxiñatik Jainkoak  
auxe euskun agindu.  
Ardura eder ontan  
nor ez alegindu?  
Orregaitik Eleizak  
au pozik egin du.

7. Meza, otoitz ta txalo  
ta bertsoak kanta,  
aitita-amamentzako  
ezer ez da falta.  
Au ondo dago baiña  
besterik ez al da?  
Prest dagoz ipiñita  
txorizo ta salda...
8. Gora aitita-amamak  
gaur dan egunian,  
Jaunak gorde zaizela  
osasun bakian!  
Eskerrik asko zuoi  
biotz onenian,  
txalo beroak joaz  
danon izenian!



15

JESUKRISTO GURE JAUNA

1. Urtez adin betekoa  
ez naiz atzo goizekoa;  
baiña gero ta egarriago  
dabilkit kolkoa.  
Sinisten dot Jaungoikoa,  
kristau naz ni betikoa;  
oraindik ez dot Jesukristogan  
sinisten naikoa.
2. Jainkoa gizon egiña,  
ume koxkor atsegiña;  
pekatuan ez, bestetan dogu  
gurekin berdiña.  
Badaki zer den samiña,  
egin nai eta eziña...  
Gurutze baten gugatik il zan  
ain maitale fiña.
3. Jainko ta gizon batera,  
biak benetan gaiñera;  
Jainkoa gizon, gizona Jainko,  
au dok au aukera!  
Pekatuak gorabeera,  
zorionekoak gera;  
Aitarenean Bitarteko ona  
dogu Jesus Bera.
4. Aita dala ta ez dala,  
zeinbat neke astrapala!  
Bere Erreiñua zabaldu nairik  
Aren egiñala...  
Aitaren Seme leiala,  
gureztat biotz-zabala;  
gorengo maillan beti jartzen dau  
gaiso ta makala.
5. Au da bearrezkoena:  
artu bide on zuzena;  
biotz-barritu ta gero deitu  
Jesusen Izena.  
Lenengoa da azkena,  
azkenengoa lenena;  
azpikoz gora jarri deusku-ta  
munduko ordena.
6. Zelan lortu zoriona?  
Entzun Jesusek diñona:  
biotz-pobrea izatea da  
iturri sakona.  
Bakegille den gizona,  
errukitsua ta ona  
geroko pozez, Jesusen alde  
osorik dagona.

7. Nun egon gaixotasuna,  
an Jesusen maitasuna;  
erren, itsu ta gaixoentzat da  
Jesus ezaguna.  
Gatx minduei osasuna,  
saminduei poztasuna;  
danen gaiñetik, auxe da Jesus:  
“Pobreen Laguna”.
8. Kurutze baten ezarri,  
oiñaze miñetan larri;  
zigor, arantzak, Kurutza ditu  
Jaunak ezaugarri.  
Ondo daki gure barri,  
gogora daigun au sarri:  
kurutzan ilez gaitu Jesusek  
bizira ekarri.
9. Kurutza ez da azkena,  
bai ondoren datorrena;  
Jaunak betiko menperatu dau  
etsairik txarrena.  
Jesus dogu gogorrena,  
jakiña dogu orrena:  
“ez da sekula galduko nire  
jarrai datorrena”.

10. “Zoaze munduan zear  
ez zaituet izten bakar;”  
Espiritua lagun, Jesusen  
barri emon bear.  
Zabaldu ziran bai azkar,  
lau aizetara su ta gar;  
gaurko Jesusen lekuko gara  
gu gazte eta zar.
11. Jesus da gure bizia,  
bidea eta argia,  
Berari esker, garana eta  
daukagun guztia.  
Badogu bere grazia,  
zerua irabazia;  
arro sentitzen da Jesusekin  
kristau arrazia.
12. Au kristau anaiarte,  
Elizako alkarte;  
Jesusek guri doan emonda  
loteri-partea.  
Kristau lez bizi tarte,  
ta zaindu pasaporte;  
Jesusi esker, o aixkidea,  
au dok suerte!

13. Jesusen Ama Maria,  
eta bardin da guria;  
Jesusen jarrai, fede-bidean  
dogu gidaria.  
Entzun, Ama, eskaria:  
emon grazi ugaria,  
zure ondoan jaritxi daigun  
betiko saria.
14. Zer garan dogu ikusi,  
eskerrak gure Jesusi;  
orain bizitzan bear dogu au  
egiz erakutsi.  
Jesus iñoiz be ez itzi,  
bere eskuari eutsi;  
orduan ziur, Jesusekin gu  
BAI GARA NAGUSI!

16

JAINKOAREN EGARRI

1. Zeru-lurren Egillea  
ta gure Salbatzaillea,  
geure Jaun eta Jabea!  
Zeure aurrean deika gaukazuz,  
zabal eiguzu atea.  
Zugan daukagu ustea,  
Zugan gure poz betea,  
o ene Jesus maitea!
2. Aintxiñatikan ezagun,  
gero egin giñan lagun;  
ze artuemon daukagun!  
Zeure bizia emoteraiño  
ze amodio deuskuzun!  
Zu barik dana da astun,  
Zurekin bake osasun;  
Zu zaitugula ondasun.
3. Egiz gara zure egarri,  
zure billa gabiltz sarri,  
maitez gozuz erakarri.  
Geure amaren sabeletik Zu  
zaitugu lagun euskarri.  
Biotzez dogu igarri  
Zeu zaitugula oiñarri,  
maitasunezko lokarri.



4. Jainkotasunez erantzi  
ta gizatasunez jantzi,  
nekez gozuz irabazi.  
Maitetasunez geuganaiño Zu  
salbatzera ziñan jatsi  
ta bizitzen irakatsi,  
emonez indar ta grazi;  
Zuri aintza ta gorantzi!
5. Aita ta ama batera  
zaran Jainko biozbera,  
kantuz gatortzuz aurrera.  
Eliz Amaren altzo gozoan  
emon deuskuzu sorrera,  
zeure bizitzan sarrera,  
seme-alaben antzera.  
Merezibako aukera!
6. Izatez buztin pitiña,  
baiña graziz neurtu eziña;  
zeure antzeko egiña...  
Errege Aitak sortuak gara  
errege ta erregiña...  
Eutsi gure maitemiña,  
garan ta dogun adiña;  
o Jainko maitale fiña!

17

JUBILATUEN KURUTZBIDEA

1. Jesus maitea, emen natortzu  
biotz zabalik aurrera,  
Kalbarioko Kurtzbidean  
Zurekin bat egitera.  
Maixu zintzoa, urten eidazu  
Zeuk be errukiz bidera,  
Zeuk lagunduta, egin dagidan  
Zeuk egiñaren antzera.
2. Jainkoa gizon egin ziñan eta  
ez al da naiko berori?  
Pobre ta gaixo lagun artuta,  
zenbat mesede askori!  
Danen ordaiñez au entzun bear:  
"bota kurutzera ori!"  
Neure bizitzan eta inguruan  
zenbat olako histori!
3. Kurutze astun bat lepoan eta  
astunagoa barruan,  
itxura danez, gaiztoagorik  
ez zan izango munduan...  
Baiña gaur, Jesus, emen naukazu  
miñez neu zure lekuan;  
au niretzako astunegi da,  
zagoz Zeu nire onduan.


4. Kurutzepean jausita zagoz  
eta jagi eziñean,  
agiri danez, gizon koxkor bat  
neugaitik egin ziñean.  
Jesus laztana, begira neuri  
egoera bardiñean,  
Zu ikusteak bixkortzen nau gaur  
neure oiñaze miñean.
5. Semea olan ikusi bear:  
jausi-jagika tatarrez,  
bere atzetik zoaz Zu, Ama  
samintasunez negarrez.  
Beste seme bat emen naukazu  
Zuri "ama" deadarrez,  
bakarrik ezin; lagundu, Ama,  
zure grazi zerutarrez.
6. Odol-izerdi eta auts-artean  
Jesus, ori da itxura!  
Aurpegi ori txukuntzea da  
Beronikaren ardura.  
Tximur ta tximaz, ai ta oi baten  
etorten iat negargura,  
eskerrak, lagun onak iatortaz  
Beronikaren modura.

7. Au biraoka, ori burlazar  
ez dozu iñor lagunik,  
lurretik gora jagiten, Jesus,  
nok lagunduko deutsunik.  
Neuk be ez daukat bakardadean  
poz ta bakezko egunik,  
Zu barik ezin eroan, Jesus,  
onen kurutze astunik.
8. "Jerusalengo ama-alabok,  
ez niri egin negarrik,  
zeuon etxean dozue naiko  
gauza negargarri txarrik."  
Ez dozu, Jauna, zure onduan  
illeta soiñu bearrik,  
konpromesuan sartzen dana bai  
onartzen dozu bakarrik.
9. Ainbeste neke artuta gero,  
au al da irabazia!  
Gogo ta biotz zeatz etenda,  
beraiño zagoz jausia.  
Dana emon nai: gogo ta biotz  
eta azken arnasia;  
neu be osorik Zeuretzat nadin  
Jesus, eidazu grazia!

10. Goitik beeraiño billosik zagoz  
danen aurrean ze lotsa!  
Egarriz ilten zagozala ta  
eskeiñi ozpin mingotsa...  
Zuri begira isilduten iat  
nire barruko aiotsa,  
Zu isilik ta ni aienaka?  
Au bai dala gauza motza!
11. Emen naukazu Zuri begira  
gaur kurutzaren oiñetan,  
neure kurutzan nagoalarik  
Zeu lez oiñaze miñetan.  
Zeuri begira bizi gura dot  
nire ordu samiñetan,  
Ama, lagundu ondo urteten  
kurutze-esamiñetan.
12. Lapur onari zerua eta  
beste danei parkamena,  
eta Aitaren esku onetan  
emoten dozu azkena.  
Eskerrik asko, orain ta beti  
o Salbatzaille onena!  
Gora Kurutze Bedeinkatua  
gora Jesusen Izena!

13. Artu egizu, Ama, altzoan  
Zure Seme Jesus zana,  
baiña ez aztu Zuretzat neu be  
beste seme bat nazana.  
Bete daigula Jesusek bioi  
azken orduan esana:  
“Ama, or dozu zure semea,  
seme, orra zure Ama”.
14. Lurpean sartu zaitue, Jesus,  
zeru-lurren Jaun ta Jabe,  
Zuk esan eta egindakoak  
au merezi izan dabe...  
Kaliza edan dozu osorik  
garratzena izanda be;  
ez bizitzan ta ez eriotzan  
ez nago lagunik gabe.
15. Sekula santan ez da gertatu  
olakorik lur gaiñean,  
“illen artetik biztu zarala  
irugarren egunean”.  
Kurutzbidean aurrera nator  
zure bide zuzenean,  
orain kurutzan Zugaz nago ta  
gero be bai azkenean.

16. Jarraitu deusatz, Aita Jainkoa,  
Jesus zure Semeari,  
emen naukazu orain Beragaz  
batera neu be opari.  
Azkenenarte zintzo ta zuzen  
jarrai daiodan Berari,  
zeure ondoan lortu dagidan  
Beragaz betiko sari.



18

AITA JAUNAREN AURREAN

1. Emen daukazu, Aita Jainkoa,  
zartxo bat zure aurrean,  
gau isillean Zuri biotzez  
zerbait esan bearrean.  
Ustu nairik biotza,  
entzun nire otoitza,  
biok gagoz bakarrean.  
Ondo dakit Zuk maite nozuna  
nazan makal ta zarrean.
2. Zuk ezagutu ninduzun, Aita  
amatxoren sabelean,  
eta mundura jaio-orduko  
maitez artu magalean.  
Au da au maitasuna  
agertu deustazuna,  
biotz aundi zabalean!  
Eskertzen zaitut orain ta beti  
goraka ekinalean.
3. Jaio-barritan bateatuta  
semetzat artu ninduzun,  
oiñez ibiltan asi baiño len  
izan ninduzun ezagun.



Okerrera jausita  
euki zaitut itzita...  
Ene, zenbat gau ta egun!  
Azken batean egiñak gara  
gu biok alkarren lagun.

4. Gazte nintzala, abilla nintzan  
zarrago ta bearrago,  
erdi bakarrik deika naukazu  
ta Zeuk noiz entzungo nago.  
Zeu zaitut, Jauna, lagun,  
ondoan gau ta egun,  
ama bat baino urrago.  
Aita ta ama zara niretzat,  
lagun oberik ez dago.

5. Urteak urte, Zeuri eskerrak,  
etorri naz zartzarora,  
noiz itzartuko or egon zara  
atean ainbat denpora.  
Len giñanok ezagun,  
egiñak gara lagun;  
bai nagola gaur gustora!  
Ustekabean Zeu sartu zara  
lagun lez nire ondora.

6. Zeuretzat egin ninduzun, Jauna,  
eta Zeugan dot atsedena,  
Zeugan izan dot asiera ta  
Zeugan izango azkena.  
Zeu zaitut Aita ona,  
ondasun, zoriona.  
Santu bedi zure Izena!  
Arraiñarentzat itxasoa lez,  
Zeu niretzat gozamina.





7. Oraindik, Aita, ez dira amaitu  
nire lan ta arazoak,  
nok lagunduko zain ortxe dagoz  
ainbat beartsu, gaixoak.  
Eurai lagunduteko  
neu nozu bitarteko,  
prest dozuz nire besoak.  
Al dan guztian poztu nai ditut  
etxe, erri ta auzoak.

8. Esku zabalez emon deustazuz  
bizitzan ainbeste urte,  
Aita, Zeugana joateko ordua  
ez da izango aparte.  
Jesusek diñost ala,  
zabalik dozuzala  
zure biotz ta besarte.  
Gora, Aitatxo! Laster nozu or,  
agur Zeuk nai dozun arte!

19

NIRE ZARTZAROKO LAGUN ZAITUT,  
JAUNA

1. Zugana natorkizu,  
ene Jaungoikoa,  
ez bedi nire lotsa  
izan betikoa.  
Zuzena zaran Orrek  
luzatu besoa,  
erdu ta emoidazu  
salbamen osoa.
2. Entzun eidazu, arren,  
barruko oiua,  
Zugan izan dagidan  
nik gordelekua.  
Zeu zara, ba, niretzat  
lagun indartsua,  
salbau eta gordeko  
nauan gaztelua.
3. Librau nagizu, Jauna  
milla arriskutatik,  
ez naitela aldendu  
zure bidetatik.  
Nire itxaropena Zeu  
gazte gatetatik,  
zeure besotan nago  
jaio ta bertatik.

4. Amaren sabelean  
sortu nintzanetik,  
banekian Zeuk eusten  
zeustala zutunik.  
Orregatik ez daukat  
nik beste asmorik:  
kantuz Zeu goratzea  
biotza beterik.
5. Askorentzat izan naz  
grazizko mirari,  
Zeu zaralako nire  
esku salbagarri.  
Pozaren pozez daukat  
biotza igari,  
eta Zuri goraka  
aoa kantari.
6. Ez nagizu zapuztu  
orain zartzaruan,  
indar guztiak joan  
jatazan orduan.  
Nire arerioak  
marmarka albuan,  
nire poz ta bakea  
kentzeko asmuan.

7. “Jaungoikoak itzi dau  
jota baztarrera,  
guk eraso ta jarri  
dagigun mendera”;  
Ez zaitetz joan nigandik  
urruti aldera,  
ene Jainko, erdu gaur  
laster laguntzera.
8. Ni emen egongo naz  
fedez itxaroten  
gero ta gartsuago  
beti Zeu goraltzen.  
Nire aoak ere  
ez bada aspertzen  
ekingo deutsa zure  
laguntza zabaltzen.
9. Au da egun osoan  
nire zoramena,  
Zuri eskeindutea  
kantuz goralpena.  
Gero txalotu zure  
aintzarik gorena,  
eta abestuko dot  
zure garaipena.

10. Gaztetatik gaur arte

Zu zaitut gidari,  
zabaldur izan ditut  
ainbat miragarri.  
Begira orain nire  
ule zuriari,  
ez ukatu eskua  
zure lagunari.

11. Agertu nai deusiet

ondorengoari  
Zuk egindako ainbat  
gauza arrigarri.  
Zure izate ona  
nunai da agiri,  
Zu lango bestebat nor?  
Ea esan niri...

12. Naigabe ta ezbear,

samin ugariak,  
zer ez dabe ikusi  
ai, nire begiak!  
Baiña ezin daike ez  
uts egin egiak,  
ta indar barri artzen  
dau nire biziak.

13. Zuk lurpe sakonetik

aterako nozu,  
barriro be zutunik  
dagidan jarraitu.  
Pozez beteko nozu,  
biotza alaitu,  
aita amama onek  
goratuko zaitu.

14. Eta emongo deusut

goralpen osoa,  
leiala zaralako,  
ene Jaungoikoa.  
Baita abestu ere  
eskerron-salmo,  
lagun dodala neure  
euskera gozoa.

15. Nire ezpanak eta

biotza batean,  
abestuko deusue  
isildu eziñean.  
Zeuk emon deustazu ta  
bizia bidean,  
arriskuan gordeaz  
zure babespean.

16. Bardin nire aoak  
egun guztietan  
leial ekingo deutsu  
bertso-kantuetan.  
Arerioak dagoz  
beti mormoxetan,  
ni Zugaz bakez nago  
ta pozik benetan.

17. Aintza Aitari eta  
aintza Semeari,  
aintza biengandik dan  
Espirituari.  
Hirurei aintza, len lez  
orain eta beti,  
gizaldi guztietan  
alan izan bedi.



20

## BIDEKO NEKE-LORRAK

1. Ene seme ta alaba,  
ez iñoiz be aztu,  
guk negar egitea  
ez dala pekatu.  
Pekatarari gara-ta  
negarra zor dogu,  
negar bako santurik  
ez da ezagutu;  
negar barik zeruan  
ezin leike sartu.
2. Negarrez jaio gara  
ta negarrez bizi,  
negar baten ilteko  
biar edo etzi.  
Alperrik asten gara  
negarren igesi,  
negar ondo egiten  
obe da ikasi,  
negar malkoz zerua  
al bada irabazi.
3. Munduak emoten dau  
zeregin naikua,  
begietatik sarri  
dàriot malkua.  
Orixe da benetan

ur bedekatua,  
“Aitaren” egin leike  
bustirik eskua;  
orrexek garbitzen dau  
zeatz pekatua.

4. Larrosa usaintsuak  
dira arantzadunak,  
arantatzarik ez dauka  
sasiko asunak...  
Olantxe dira Jaunak  
maitatzen ditunak:  
zeruratu baiño len  
kurutze astunak;  
ez dira zeruratuko  
alper ta lizunak.
5. Geure kuman erne zan  
kurutze-landara,  
eta geugaz azten da  
urteen erara.  
Lerrenak egin arren  
ezin lei atara;  
aldean darabilgu  
leku danetara,  
zeruan ez da izango,  
aratzen bagara.
6. Ikasi daigun danok  
zelan dan zerua,

sarrerako txartela  
ain dala karua,  
batentzat ez da naiko  
munduko dirua.  
Obe da biotzeko  
negar zizpurua;  
emen ta gero zerua?  
Ez da segurua!

7. “Nekepean minduta  
bizi zareana,  
zeure lagun nozu-ta  
etorri Neugana.”  
Auxe da Jesus onak  
guztioi esana;  
ez jatzu damutuko  
siñistu izana  
zeuk txastatuko dozu  
zerutiko mana.
8. Au da nire eskola  
ta jakitura,  
bizitzan zear jaso  
dodan kulturua.  
Auxe esatea zan  
nire arduria,  
gogoratu naizuen  
nāzan aguria:  
“bai zuzen egoala  
aitita guria”!



21

**GEROKO ITXAROPENEZ**

1. Azken orduan miña  
sortzen deust kalteak  
eta poza pobreei  
lagun egiteak.  
Nai ta nai ez, badoaz  
emengo urteak,  
diranak joan beitez  
gauz onez beteak.
2. Uste barik aurrera  
goaz abenduan,  
“ori ondo dakigu”  
esango genduan.  
Badakizu zer dodan  
gaur pentsamentuan?  
Bizitza badoala  
txirrist momentuan.
3. Agur joan danari  
ta goazen barrira,  
bizi gaitezen, lagun,  
aurrera begira.  
Gu joan arren, frutuak  
or gelditzen dira,  
an ta emen zer poza  
ain onak balira!

4. Ume, gazte ta nausi  
sendo, gaixo bardin,  
egia egi da-ta  
zer datorren jakin:  
Jainko Aitak betiko  
gaituala egin,  
orren itxaropenez  
lortu arte ekin!
5. Maitasunez jatsi da  
Jainkoa mundura,  
guri laguntzea da  
dakarren ardura.  
Emen bizi gaitezen  
bere agindura,  
gero batu gagizan  
zorion lekura.
6. Urteen barri daki  
bizi izan danak,  
mordotxo bat badira  
batu jatazanak.  
Gogoan izan beti  
aititak esanak,  
berak aiten aitari  
entzun eutsazanak.

7. Ondo egiñaz ez naz  
iñoiz be damutu,  
eta ori da emen  
gelditzen dan frutu.  
“Aitita ona zala,  
zintzo eta justu”,  
munduak ortik nai dot  
naian ezagutu.
8. Seme eta illoba,  
ta gaiñerakoak,  
ez gero iñoiz aztu  
gaur entzundakoak:  
samur da esatea:  
“areik bai zoroak!”  
Nor dan oker ta zuzen  
esan bei geroak.

22

ZE KREDO-MODU DA AU?

1. Bertso antzeko batzuk  
moldatzera noa,  
inguruan badago  
zeresan naikoa.  
Au da nastea, jaunak,  
au da au laiñoa!  
Nok igarri zein dan gaur  
askoren kredoak.
2. Batzutan ondo datoz  
Ebanjelioak,  
ezin leitekez galdu  
pribilejioak...  
Olakoen kredoak  
a ze balioak!  
Asi orduko datoz  
patrifilioak.
3. Gaur dira katoliko  
ta biar ateo,  
bardin artu ta itxi,  
komeni ezkerro.  
Gaur eskuman daukazuz  
aupadaka bero,  
ta biar ezkerrean,  
ta norantza gero?

4. Ez da errez bakoitza  
nor dan jakitea,  
ain errez aldatzen da  
modaz txaketea!  
Gaur agertzen jatzuna  
aixkide maitea,  
biar aurka daukazu  
nun eingo kaltea.
5. Norbera ez besteak  
danak diktadore,  
norbera goian bada  
orduan dotore.  
Iñoren arlo ta lan  
dana da folklore,  
norbera jasotzeko  
ze txalo ta lore!
6. Asmaualak asmatzen  
milla gizon listo,  
nundikan buztartuko  
Judas eta Kristo.  
Fede onez ez ei da  
iñortxo be gaizto...  
“ateo fededun” da  
gure Txilibristo!

7. Orain bakoitzak dauka  
norbere kredoa,  
dana neurritz eginda,  
baita be Jainkoa.  
Gaurko jentemodua  
ez da ez tontoa:  
asiera ta azkena  
norbere kolkoa.
8. “Egiak egi dira,  
baiña ez betiko”,  
komeni bada artu,  
ezpada, ostiko...  
Gaur ez dago eziñik,  
ai ene mutiko!  
Sinistu naiz ukatu,  
danok katoliko!
9. Len baegoan lege  
ta kontzientzia,  
baiña gaur nausi dago  
gure zientzia.  
Nai bada ta al bada  
bada lizentzia,  
Kredoaren ardatza  
da komenentzia.

10. Gaurko kredo barri au  
amaitu baiño len,  
beste egi bat esan  
bear dogu emen:  
“neu gora ta neu beera,  
neu azken eta lenen;  
beti neu in sekula  
sekulorum. Amen”.

23

LURDESTIK GATZ

1. Amabigarren urtean  
etengabeko katean,  
betiko aldra bat izan gara  
Lurdesko partean.  
Luzaro batu gaitean,  
ez da izango kaltean;  
Lurdesko Amak zaindu gaizala  
bien bitartean.
2. Ekaiñaren asieran  
guk beti oi dogun eran,  
Lurdeserako erromes-deia  
datorku aukeran.  
Zetan joaten ete geran?  
Ezin esan lei izkeran;  
etorri eta zeuok ikusi,  
gu gabiltz primeran.
3. Eskari edo promesa,  
penitentzi ta erreza;  
seme gaixoak billa dabiltza  
Amaren babesan.  
Ango zotin ta inkesa,  
gizonaren ezereza...  
An ez da errez nor dan igerten  
pobre ta markesa.

4. Gauez Errosarioa,  
betiko usadioa;  
milla izkuntzaz Ave ta Agur,  
zer murmurioa!  
Amaren pozkarioa,  
graziazko jarioa...  
Plaza betean dator Amaren  
bedeinkazioa.
5. Ezin da aztu inola  
Kalbarioko eskola:  
an ikusten da kurutze barik  
inor ez dagola.  
Negar, izerdi, odola  
penitentziz dariola;  
ez da biotzik urtzen ez danik,  
ez bada marmola.
6. Au da Lurdesko klasia  
badago zer ikasia:  
eleiz ta kale, gaixoak dauke  
lenengo plazia.  
Au da kristau errazia,  
gaixoentzat arnasia:  
seme-alaben bitartez doa  
Amaren grazia.

7. Ez deusku kendu gaixorik,  
inor ez dago osorik;  
ez dogu lortu mirari eta  
beste olakorik.  
badauka obeagorik,  
emon ta esatekorik!  
Ez da izango munduan beste  
Ama ain goxorik!
8. Au leku zoragarria,  
Amak geuretzat jarria:  
bere oiñetan dauka guraiña  
polpol iturria.  
Mama osasungarria,  
asetzeko egarria;  
goxatzen ditu batera biotz  
eta eztarria.
9. Lurdesen dagon bakea  
eta ango borondatea!  
Bear danean, alkar laguntza  
duan ematea...  
Zorionaren atea,  
gitxi da au esatea:  
danentzako da mesedegarri  
ara joatea.



10. Eskari bat azkenean,  
Ama, danon izenean:  
seme-alabok gorde gagizuz  
bide zuzenean.  
Batetik sinismenean,  
bestetik osasunean;  
zeure ondoan artu gagizuz  
orruntz goazenean.



24

**BARRI ONAREN PROFETA**

1. Nazareteko Gizona,  
iñor bada, a bai ona!  
Gaixo ta pobre errukarriei  
osorik emona.  
Auxe da Berak diñona,  
Aitak agindu eutsona:  
Jaungoiko Aitak gura dauala  
danon zoriona.
2. Gizonak Kurutzan illa,  
Aitak: "berbiztu dedilla"!  
Ez gero iñor illen artera  
joan Aren billa.  
Espiritua dabilla  
bizi-sortzaille ixilla;  
eriotzatic sortzen badaki  
bizitza-pilpilla.
3. Zer dagon Kalbarioan,  
Jesusen misterioan?  
Dana amaitu zala ustetan  
bere erioan.  
Aitaren amodioan  
biztu da ondorioan;  
geroztik beti Kurutza dago  
bizi-jarioan.

4. Jesus dogula bitarte  
danok gara senitarte;  
Espirituak moldatu gaitu  
Eleizan alkarte.  
Diferentziak aparte,  
gorputz bizi baten parte;  
bere testigu gara mundua  
mundu dogun arte.
5. Lurrera doan azia  
neguz usteltzen asia,  
udabarrian artzen dau barriz  
bizi-arnasia.  
Ori bai dala gauzia:  
eriotzatik bizia!  
Au da Jesusek jarraitzaileoi  
damoskun grazia.
6. Ai, olako albisterik  
bai al dago sinisterik?  
Illen artetik biztu dan Jaunak  
zer diño besterik?  
Kristau fede ta usterik  
ez dau merezi uzterik;  
au sinistuta ezin leiteke  
bat bizi tristerik.

7. "Aiene eta aiena"  
beti olan dabillena,  
kanpaiak joten diardu, baiña  
beti da illena.  
Pobre da aberatsena,  
aberats da pobreena;  
zoriontsu da bakarrik, Jaunak  
asetzen dabena.
8. Dana da dan bestekoa,  
ez nai dogun modukoa;  
buztarri ortan ekandu dana  
zorionekoa!  
Ezer ez da betikoa,  
bakar bakarrik Jainkoa;  
AITA dogula jakin ezkerro,  
ez al da naikoa?
9. Kristau baten jokaera  
beti dago baietzera;  
bizipoza ta itxaropena  
da bere aukera.  
Joan dana itzi atzera  
eta'begira aurrera;  
bizibarritzen da egunero  
Jesusen antzera.

10. Goiko arnasez beteta,  
Barri Onaren profeta;  
bere bizitza beterik dago,  
ez da barriketa...  
Ez da naikoa protesta,  
buru gogorra be ez da;  
Jesus bizi da, ekin ta jarrai  
cup, ori dok-eta!

25

**AITTAREN TESTAMENTUA**

1. Larogei urte bete barriak  
ditut nire bizkarrean,  
seme-alabok, laster nozue  
agur esan bearrean.  
Biotza ondo daukat oraindik  
ta zentzuna indarrean,  
entzun aitak gaur diñotsuena  
bizitzako ondarrean.
2. Aitak eta amak azi ninduen  
euskaldun zarren oituraz,  
eta mundura jaio orduko  
kristautu bateo uraz.  
Asabakandik jasotakoa  
bete dot beti arduraz,  
altxor eder au, nire ondoren,  
galduko ete da benturaz?
3. Bildur santuan maite eizue  
zeruetako Jainkoa,  
eta leialki jarraitu beti  
Jesusek esandakoa.  
Orduan etxe au izango da  
beti zorionekoa,  
ez aztu, gero, Bera bakarrik  
dala beti betikoa.

4. Gizaldietan gurean beti  
izan da sinismena,  
aurrera ere, Jainkoa lagun,  
ala bedi ondorena.  
Gurean beti izan dedila  
Jaunaren bedeinkapena,  
azken orduan auxe litzake  
testamenturik onena.
5. Gaur bedeinkatzen zaitue aitak  
biotza bete betean,  
eta eskatzen deusue auxe  
Jainkoagana joatean:  
alkar lagunduz bizi zaiteze  
danok alkarren artean,  
alkar maitatuz eta parkatuz  
bizi zaiteze bakean.



6. Ene Jainkoa, eskatzen deusut  
emen danon izenean:  
orain ta beti zaindu gagizuz  
zeure bide zuzenean.  
Artu nagizu errruki aundiz  
betiko maitasunean,  
gertu naukazu, eroan naizu  
Aita, Zeuk nai dozunean.


**BILLA TA BILLA**

1. Billa ta billa dabil  
aizea mendian,  
billa ta billa nabil  
munduko bidean.  
Zer da egi? Nun da bide?  
Jauna, nun zagoz Zu?  
Billa ta billa nabil,  
Jauna, nun zagoz Zu?

2. Billa ta billa dakust  
laiñoa zeruan,  
billa ta billa daukat  
zentzuna buruan.  
Zer da egi? Nun da bide?  
Jauna, nun zagoz Zu?  
Billa ta billa nabil  
Jauna, nun zagoz Zu?

3. Billa ta billa dabil  
erlea zelaian,  
billa ta billa nabil  
beti zerbait naian.  
Zer da egi? Nun da bide?  
Jauna, nun zagoz Zu?  
Billa ta billa nabil,  
Jauna, nun zagoz Zu?

4. Billa ta billa dabil  
tximeleta landan,  
billa ta billa nabil  
emen, or eta an.  
Zer da egi? Nun da bide?  
Jauna, nun zagoz Zu?  
Billa ta billa nabil  
Jauna, nun zagoz Zu?





5. Billa ta billa dabil  
arraña uretan,  
billa ta billa nabil  
neu be amesetan.  
Zer da egi? Nun da bide?  
Jauna, nun zagoz Zu?  
Billa ta billa nabil  
Jauna, nun zagoz zu?

6. Billa ta billa doa  
ura ibai bete,  
billa ta billa noa  
zeuganatu arte.  
Zer da egi? Nun da bide?  
Jauna, nun zagoz Zu?  
Billa ta billa nabil  
Jauna, nun zagoz Zu?

### III

#### OLGETAN-BENETAN

27

AITITA-AMAMAK ERROMERIAN

1. Udea urreratzean,  
jaiak alkarren atzean:  
santu ta santa talde aundia  
danak batera antzean;  
eurak serbidu eziñik gabiltz  
komediante antzean.
2. Kristau bizitzan trakesak,  
geienetan aldrebesak;  
fedea beerantz, baiña gorantza  
santu-jaien interesak;  
santuak ondo zaindu eziñik,  
arrapau gaitu estresak.
3. Onak dira errikuak,  
obeak erbestekuak.  
Ondoren datoz ipiñi-ala  
“errepetiziñokuak”...  
Baiña danetan onenak dira  
“zubia” egitekuak.
4. Gu bai gara santuzale,  
bardin baserri ta kale.  
Ez mezarik ta ez prozeziño,  
baiña juergan jo ta dale!  
Or konpon San Blas, guk probetxua  
atera dogu ta, bale.

5. Erretiratzeko orduak  
“abemarietakuak”,  
bestelan agur gau aretako  
atsedenak eta luak!  
Goxoak ziran ate-ostean  
“santuen erregaluak”!
6. Baztar batetik bestera  
joan gara gautik goizera.  
Ez da erreza neurria artzen,  
obe gitxi gorabeera;  
obe litzake santuak eurak  
baletoz geure artera!
7. Gure dantza trikitixa,  
baltzeoari manixa...  
Deskuidoren bat izaten bazan  
autortzeko a ze prixal!  
Orrexagaitik bein bota eben  
“kongregaziñotik” Luixa.
8. Aupa kriskitin kraskitin,  
al dogun artean ekin.  
Illeta joten astea baiño  
obe pozik dantzan egin;  
Jesus Bera be jaizalea zan,  
erromeriak atsegin.

9. Gazte giñala, mitiña  
ta zartzaroan eziña...  
Santuak eurak zaindu beiskue  
dantzarako gure griña;  
orain baltzeo ta danak libre,  
baiña, ai, gerriko miña.
10. San Antonek txintzarria  
ta Madalenak farria:  
erreuma barik, salto ta brinko  
erromeri pozgarria,  
antxe aseko dogu betiko  
gure dantza-egarria.



28

**BAI TA EZ, EZ TA BAI**

**BAI TA EZ, EZ TA BAI  
EZTABAIDAKO AUZIA,  
EZ TA BAI, BAI TA EZ  
BADAENZPADA KO GAUZIA**

1. Lagun, munduan zer barri?  
Zer dagon begira jarri:  
itxura onak bai sarri,  
baiña barrutik zer larri!
2. Zenbat burruka ta auzi,  
ta ezin kontuan jausi:  
danok nai dogula nausi,  
bestelan musturrak jo t'ausi.
3. Norbera beti da maixo,  
danak burumakur: kaixo;  
kontra dagonaren gaixo,  
jo t'apurtu, ze arraixo!
4. Gazteak zarrari irri,  
zarrak gazteari zirri;  
azkenean kakapirri,  
alkarri deutsela tirri.

5. Batak diño: zuri dala,  
besteak baltz edo ala;  
ez dala eta badala,  
ai zelango astrapala!
6. Nirea neuretzat dana,  
ta zurea erdibana,  
berbetan dogun zana...  
Baiña besteentzat lana!
7. “Gizon danok gara anai”,  
orreik dira berbak jai!  
Ezpanez diñogu: bai, bai,  
baiña egitez...tralara!
8. Gaur dana da:“alkar maite”  
baiña kontuz ibil zaite,  
mila promesa ta koipe  
eurena jaritxi arte.
9. Naiz iretargira ixon,  
gixona beti da gixon;  
naiz Aita Santu, naiz Nixon,  
il ezkerro, kirieleison.
10. Esanak esanda gero,  
jokatu daigun bero,  
zuzen ibilli ezkerro,  
errukituko da Pedro.

29

SANTUEN PROTESTAK

GURE IZENEKO FESTA  
FOLKLORE BESTERIK EZ DA,  
BESTE GUZTIEN ANTZERA GEUK BE  
EGITEN DOGU PROTESTA

1. “Badatoz santu ta santak”,  
jentiaren poz ta kantak...  
Gu ez gaitue asko poztuten  
faltsokeriazko plantak.
2. Mendi, baserri ta kale  
danak dira santuzale,  
geure kontura ta geure kontra  
gau ta egun jo ta dale.
3. “Negua negu” esanda,  
santu-santa barik joan da;  
geure errukiz izaten ei da.  
Zelan egin propaganda!
4. Or gabiltz aizetan sarri  
bazarren barregarri;  
geure kontura, euren probetxuz  
jentea zelan ekarri...

5. Adi geure ingurura,  
dana atso-agura;  
geugaz gaupasa eginda gero,  
gazteak dira logura.
6. Luzia eta Xixili,  
obe da egon ixili...  
Kale ta plaza jai egin eta  
eleizarako bijili!
7. San Nikolas ta Bixente  
nor ete da iñuxente?  
Gure atxakiz juerga eginda  
geu barik dabiltz dexente.
8. San Permin eta San Anton,  
zezen ta txarrien Patron;  
gizonik ez da ganau-artetik  
gu bagoaz ta or konpon!
9. San Blas ta San Antonio,  
ez dogu gitxi balio;  
Mezan ez, baiña dantza-plazetan  
zenbat kristau ta indio!
10. Ez daukagu atrakorik,  
ez manifestaziñorik;  
bakoitza bere orduan dator,  
ez da bear sekuestrorik.

11. Badoguz maitale fiñak,  
maiordomu atsegiñak;  
eurak deuskuez zaintzen ermitak  
ta konpontzen itugiñak.
12. Ondo ospatu gure jaiak,  
igaro ordu alaiak;  
eta ez aztu gu gareala  
zuen zeruko anaiak.



30

**BAT, BI, IRU, LAU.**

**BAT, BI, IRU, LAU  
BOST, SEI, ZAZPI,  
EUSKALDUNAK IRABAZI  
IRABAZI. AURRERA!**

1. Badogu kolko bete kontu eta kantu, ez atzo eta ez gaur dana ez da santu.
2. Lendik nago artuta ni atentziñoa: pentziñoa beera ta gora tentziñoa.
3. Izan dogu bizitzan ainbeste histori, ez dauka edozeiñek gure kategori.
4. Len bearra sobre ta janedana pobre; orain bearrik ez ta danetatik sobre.
5. Oker suertatu jaku munduko karrera: ortzak jausita gero txuletak aurrera.

6. Gogoan artzekoak zarraren kontuak: eskola gitxikoak, baiña ez tontuak.
7. Oeratuta itzarrik, jagita logura; kilikili gitxi ta edonun azkura.
8. Errez egiten dogu plist plast eztropezu, orduan alperrik da santuei errezu.
9. Ustu barruko gatxa kendu amorrua, eta bete goraiño geroko zorrua.
10. Ez dago kontu danak aitatzerik emen; esan daigun: "sekula sekulorun. Amen".

31

GORA JUBILATUEN  
ERREBOLUZIÑO

1. Urte batzuk badira  
jubilau nintzala,  
eta bizimodu au  
ez dok ez makala!  
Juergarako beti da  
prest materiala,  
ni pozik bizi naz ta  
au dok printzipala.
2. Etxetik urteteko  
gertu gagoz beti,  
len bizi izan gara  
lotuta geiegi...  
Tokatzen jakun martxan  
bide oni segi;  
eta Jainkoa lagun,  
ala izan bedi.
3. Oraindik badaukagu  
naiko apetitu,  
errez kargatzen dogu  
busti edo siku.  
Ondoren dator eztul  
edo domistiku;  
ez da errez egiten  
gure pronostiku!

4. Batean Agate da  
bestean Luzia,  
guk zarrok maite dogu  
santuen grazia...  
Orduan sendatzen da  
gatxen desgrazia;  
dantzarako ez dago  
edade pasia!
5. Ez da bakarrik meza  
ta deboziñoa,  
lendik dogu Jaunaren  
bedeinkaziñoa.  
Naizta kaxkarra izan  
dogun pentsiñoa,  
gora jubiladuen  
reboluziñoa.
6. Sarri egiten dogu  
noranai balantza,  
baiña ara ta ona  
ezin gara kantza.  
Urte batzutan beintzat  
bada esperantza...  
Artajorra ona da,  
obea da dantza!

7. Martxan jarri gaituna  
da "Bizian gora",  
ondo bizi nai badok  
ekarririk gogora:  
len ere galdu dogu  
naikoa denpora,  
batu gaitezán danok  
alkarren ondora.

8. Gu gara XXX'ko  
Jubilau kuadrilla,  
geienok aintxiñako  
neska ta mutilla...  
Lagun, bazabiltz giro  
gozo baten billa,  
gure tartean dozu  
zuretzako silla.



32

**AU DOK! AU DOK!**

**AU DOK! AU DOK!**

**AU DOK UMOREA!**

**ZARTUTA GERO, ETORRI JAKUK**

**MARTXA DOTOREA!**

1. Euskaldunak gara ta  
euskaldun nai bizi,  
beste guztiak onak dirala  
geurea nagusi.
2. Badakigu lanian  
ta ondo bizitzen,  
karrera barik, ikasi dogu  
munduan ibiltzen.
3. Famili on bat azi  
ta zorrik ez iñun,  
jubiladuok, ondo ibilli  
Jaungoikoa lagun!
4. Ondo ibilli eta  
bartzarrak ikusi,  
ainbeste urtez lan egin eta  
ez dago itsusi.

5. Azkenian eldu da  
jubilaziñoa,  
aupa mutillak, auxe bai dala  
bedeinkaziñoa!
6. Zelan poztuko dabiltz  
aitita t'amama,  
seme-illobak ondo ikustea  
gure zoriona.
7. Asko bizi ondoren  
geiago bizi nai,  
neke lan asko izan dogu ta  
egin dagigun jai.
8. Mundu barria ei da  
etorri jakuna,  
barri naiz zarra, gizon izan ta  
ez galdu zentzuna.
9. Gazteak gazte dira  
eta gu nagusi,  
guk baditugu eskubideak  
ta ez galtzen itzi.
10. Agur ta ondo bizi  
jubilatu maite!  
Alkarren lagun bear dogu ta  
azkar etor zaite.

33

GURE KOMERIAK

1. Gure kontuak zabaldu nairik  
artu dogu lizentzia,  
eskola asko ez dogu baiña,  
bada esperientzia.  
Eskola ederrena  
urteak dakarrena,  
bizitzako zientzia.  
Bizi bazara, lortuko dozu  
artuizu pazientzia.
2. Urte askotan bizi dan batek  
daki bizitzako barri,  
neurri danetan probatua da,  
bein nasai eta bein larri.  
Len dana zan pekatu,  
ta gaur dana askatu...  
Zer dan ona nork igarri?  
Sasoia joanda, bozala kendu  
eta pentzua ekarri...
3. Gure kontuak kontu ei dira  
sarritan dogu entzuna,  
zelan ukatu geinke bizitzan  
geuri gertatu jakuna?

“Ekatzu daukazuna,  
zeuretzat dakizuna...”

Au da gaurko erantzuna.

“Errepartuan gomutau nigaz,  
ene amama kuttuna!”.

4. Gure eskola geiena dogu  
geuk narrutik ikasia,  
baiña sinistu ta entzun nai ez,  
au be bada desgrazia!  
Euskaldun ta fededun  
geurian iraun daigun,  
zaindu geure errazia;  
orain arte lez, izan daigula  
Jaungoikoaren grazia.

5. Ondo jan ta lo, artu atsedan,  
eta baztarrak ikusi,  
auxe da gure bizi guztiko  
sasoi eder ta nagusi.  
Ez itzi inun zorrik,  
ta ez ausi mokorrik;  
buruari goian eutsi!  
Len gaztaroan zer izan giñan  
zartzaroan erakutsi.

6. Luzaro bizi izan garanok  
pobre edo mixerian,  
ez gara neurritz ondo moldatzen  
orain dogun gulerian.  
Inpernuko auspoa,  
gaur da aingeruzkoa,  
au suerte txarra perian...  
Txanda pasauta, sartu gara gu  
bizitzako komerian.

7. Jubilatuok askotxo gara  
eta gero ta geiago,  
guztiok alkar artu ezkerok,  
joko genduke ordago.  
Al doguna geuk egin,  
jokatu alkarrekin;  
gure indarra or dago.  
Ainbeste diru eta aukera  
ez zan izaten lenago.

8. Kontu kontari asi ezkerok,  
ezin egundo amaitu,  
Auxe esanda, naikoa dogu  
iñor ez daiten gogaitu.  
Gaurko gure esanak  
egiak dira danak,  
nai badozuez jarraitu.  
Nai genduzanak esan doguz ta  
orrek kontsalatzen gaitu.



AGUR AITITA ETA AMAMA!

1. Amamak maite maite  
dau Peru aitite,  
aititek, barriz, maiteago dau  
amama Pantxike.
2. Bein garratz ta bein gozo,  
maite dira oso.  
Gorputz t'arimaz danetan dira  
"alkar-poderoso".
3. Aitita da logura,  
amama olgura;  
kontu aundiaz egiten deutso  
surpuntan azkura.
4. Aititak isilpoltsa,  
esaten be lotsa...  
Amamak kendu ta jarri deutso  
astoen korotza.
5. Amamak zalapartak,  
aititak txinpartak;  
sarri aidean agertzen dira  
burutik zapatak.

6. Aitita jaun ta jabe,  
amama mirabe;  
baina amamak aginduten dau  
xuabe xuabe.
7. Noiz ta zer konfesatu  
amamak juzgatu...  
Autorleak be aurretiz daki,  
alperrik ukatu.
8. Amamak daki sarri  
aititaren barri:  
guzurrak esan, isilik egon,  
ta dana igarri!
9. Olan zan lenengotan,  
entzuna askotan;  
Eba ez balitz, gaur ere Adan  
an egoan lotan.
10. "Ondo dago dan dana",  
Jaïnkoak esana;  
olakoxeak maite ditugu  
aitita t'amama.


**AU DA BIZIMODUA!**

1. “Artu maletak eta  
Goazen Benidorra”,  
antxe barriztuten dau  
aititak motorra...  
Eta amamak zelan  
bixkortu mokorra!  
Au bear genduan ta  
au dok artajorra!
2. Jan, lo eta ibilli,  
kantu ta kontua,  
kafia artuta gero  
kartetako ordua.  
Guk ez genkian zanik  
ain ona mundua;  
dana joan zalakuan,  
au bizimodua!
3. Lagunak onduan ta  
eskuan Biblia,  
aspaldian egin naz  
Jaungoiko zalia.  
“Bizian gora” dogu  
gure familia,  
jubilaziñorako  
au erregalia!

4. Canfali hotelean  
irurogei lagun,  
au bizimodu ona  
amairu bat egun!  
Hotelean eleiza  
ez dago edonun;  
gu edonun gara ta  
euskaldun fededun.
5. “Benidorrera ez da  
sartu olakorik”,  
itxuraz, ez ei gagoz  
burutik sanorik;  
Gu baizen ondo ez da  
munduan askorik;  
gu zoriontsu gara,  
naiz egon zororik.
6. Anaiarte gozoan  
ez da gauza txarrik,  
beti giro ederra  
lotan ta itzarrik.  
Gu baiño obeto nor,  
ez gazte, ez zarrik?  
Munduan beintzat ez;  
zeruan bakarrik.

7. Osasunez beterik  
gorputz ta arima,  
bizitzen jarraitzeko  
zelan ez anima?  
Geure "Bizian gora"  
daigula estima,  
askok ez dakie ta  
auxe da lastimal!
8. Gauza bat da esana  
beste bat izana,  
erditxo bat be ez da  
esanala dana...  
Ikusten dozu pozik  
pilpil gabiltzana,  
ez dakizu au zer dan  
ai ene lastana!
9. Ementxe betetzen da  
Jesusek diñona:  
"Ogiz bakarrik ez da  
asetzen gizona".  
Benidorreko zer au  
ain da gauza ona,  
ementxe txastatzen da  
zer dan zoriona.

10. Ondo ibilli gara  
Benidor partian,  
danok umore onez  
eta anaiartian.  
Osasun, bakez bizi  
bien bitartian,  
Jaunak alkartu arte  
datorren urtian.



36

ZUK ISO ETA NIK ARRE

ZUK ISO ETA NIK ARRE  
NEGAR EZ DANEAN, BARRE,  
KONTU TA KANTU, TXISTE TA MISTE  
UMORE ONA DAKARRE.

1. Santu-santak akorduan  
premina dogun orduan;  
geure gustora gabiltzanean  
ez doguz bear onduan.
2. Artzeko guztiok pronto,  
emoteko, barriz, tonto;  
zorri bizturik askotxo dabil  
iñoren lepotik ondo.
3. Don “balitz” ta doña “bazan”  
biak alkarrekin dantzan;  
okela gitxi ta salda asko  
orreik egindako saltzan.
4. Gizonak lanean ekin,  
Jaunak burutu ta egin;  
bizi ezinik ez da, badoaz  
biak ondo alkarrekin.
5. Ibaiak ez dira aunditzen  
ez badira loiz zikintzen;  
diru-poltsa bat ez da astuntzen  
milla ez badira arintzen.

6. Dagonean dagontxoa  
ai ene ba, gizontxoa!  
Urtean zear porrusalda ta  
Pazkuz al bada artxoa.
7. Ilda gero, salda bero,  
oberik ezin espero;  
zetan sareak bota, arraiñak  
urak eroanda gero.
8. Jan-edanaren goxua,  
kontu emonaren gaixua!  
Bizibearra bera da naiko  
gu ezitzeko maixua.
9. Esana bat, emona bi,  
esanaz kontenta adi;  
sardiñaz doan katu baltzari  
atzetik esaiok “xapi”.
10. Jantzi txapela buruan  
eta ibilli munduan;  
kontu asko ta probetxu gitxi  
orrelakuen onduan.
11. Jan bear da biziteko  
eta ez bizi jateko;  
amaika bizi dok lur gaiñean  
lau ankakoen pareko!

12. Kalera urtenda uso,  
etxean sartuta otso;  
olako baten etxe-ingurua  
ez dok ibiliko goxo.
13. Nun dagon nire gogoa,  
an dago nire zangoa;  
alperrik amets, ezin eskura  
emengoa eta angoa.
14. Nirea neurezat dana  
ta zurea erdibana;  
karidadea ete da neugan  
asi eta amaitzen dana!
15. Zozoak beleari: ipurbaltz,  
iñorena danean, latz;  
auzoa auzo, dana sastraka,  
gurean dana da baratz.
16. Gixona beti da gixon  
eta katu baltza mixon;  
azkura baaiz, eurea don ta  
nai badon, azkura eixon.
17. Zarra beti da ganbelu,  
gaztea, barriz, gaztelu;  
alkarlanean bizi izateko  
iñoiz ez baiño obe belu.

18. Txarto esanak parkatu,  
ate-ostean sakatu;  
lege oberik ez da sortuko  
erria nai bada askatu.
19. Obe txori bat eskuan  
eta ez asko zeruan;  
dagona dago, diranak dira  
len, orain eta geruan.
20. On egiñaren pagua,  
ate-ostean palua;  
leku askotan banatzen da gaur  
olako erregalua.



**AITITA-AMAMEN ZEREGO ZERAK**

**IRUROGEITA ZAZPI  
URTE ALKARREKIN,  
IA ZERTUTA DAGOZ  
PANTXIKE TA MARTIN.  
BEIN ASI ZIRAN BERO  
EKIN ETA EKIN:  
ZEREGO ZERA ZER DAN  
EA ZEIÑEK DAKIN.**

1. - Ezagutzen al dozu  
zuk zerako zera?  
- Zu zertu baiño len  
zertu neban bera.  
- Zelan zertu ete zan  
orrela zertzera?  
- Zera zertu ezkeror,  
dana goitik beera.
2. - Zereko zer batetik  
asi ei zan zertzen  
- Zuk ez dakizu, lagun,  
zer bati igertzen.  
- Zer danak asi dira  
argira agertzen  
- Zereko zeragaitik  
asi zan okertzen.

3. - Zereko zera euki  
ta ez dauka zerik  
- Zera zer dan nok jakin  
zera zertu barik?  
- Geure zerak zertzeko  
ez dogu besterik  
- Zerak zertu ezean  
ez dago zertzerik.
4. - Ainbeste zertu barik  
esaizu zeozer  
- Onenbeste zertuta  
au ez da edozer.  
- Alperrik zera zertu  
zertzen al da ezer?  
- Zerak zertzen badira  
zuri ta niri zer?
5. - Burura etorri jat  
alakoxe zer bat  
- Olako zera zertu,  
zuk ez artu aintzat.  
- Zelan edo alan be  
zertu dodaz ainbat  
- Nik zuri zertuteko  
zertxo bat badaukat.

6. - Osasuna ona da  
zeragaz batera  
- Gitxiagoaz zertu  
eta jo aurrera.  
- Biar zeraren bila  
joango naz zerera  
- Zeureak zertu ondo  
ta zertuko zera.
7. - Olan zertzen badogu  
ezin geinke zertu  
- Ez dakit neure zerok  
gaur zelan agertu.  
- Zertzen dagozan zerak  
baietz gaur aspertu  
- Zer ona ez daukanak  
ezin dau ulertu.
8. - Atso zartxo batek au  
zelan zertu leike?  
- Aguratxo bategaz  
egin leike truke.  
- Zu langoak ugari  
ta gainera merke  
- Joan zaitez Txinara  
obe baten eske.

9. - Zereko zerak zertu  
ditugu gaur errez  
- Argi esanda dago  
ta zertzen da berez.  
- Ni neu zertuta nago  
ez dakit ezer bez  
- Beti zertzen zara zu  
alperren alperrez.
10. - Gu biok gaur entzunda  
zer zertuko dabe?  
- Zertuta dagozala  
biok goi eta be.  
- Zu beintzat ez zara gaur  
Zertxo baten jabe  
- Zeu zagoz zu, laguntxo,  
zer izpirik gabe.
11. - Zereko zer au zer dan  
jakin nai dauanak  
- Izango ditu naiko  
nekelor ta lanak.  
- Laster amaitzen doguz  
gaurko gure esanak  
- Zer zer dan ez dakigu  
geuk jardun garanak.

12. - Agur, zereko zerok,  
zertzekotan nago  
- Ainbat kontu zertuta  
dana argi dago.  
- Olan zertu ezkerro  
gero ta zerago  
- Gaur naiko zertu dogu,  
ta biar geiago.



38

KARNABALETAN

1. Emen dira Karnabalak  
orretan gaituk makalak!  
Txiki ta aundi egiten doguz  
beti egiñalak.  
Konsumo-giro petralak  
astintzen deuskuz egalak;  
orduan datoz estu ta larri  
askoren tripalak.
2. Mozolo eta tximiño,  
danetik dago oindiño:  
atso-agurak saltoka dabiltz  
a zer deboziño!  
Akelarre, erlijiño  
ta mila burutaziño...  
Gure artean ze pizti dagon  
orrek berak diño.
3. Santu-egunak gitxitu,  
jan-edanekoak geitu;  
deboziño onak ze indar daukan  
ezin dot sinistu.  
Gero baztarrak txikitu,  
iñun eziñik kabitu;  
narru betean ibiltzeak be  
bere lanak ditu.

4. Emakumea da gizon,  
gizona emakume don,  
kristaua jentil, jentila kristau,  
Marijai, Zeledon...  
Ezkongaia dago ezkon,  
ezkondua dabil txintxon;  
atso-agurak or datoz eta  
kirieleison!
5. Txakurrak diñoe miau,  
katuak, ostera, uau;  
gauzak aldrebes ta danak pozik,  
orrek arritzen nau.  
Gazte, eldu ta jubilau,  
bardin jentil eta kristau;  
au ikusita, esan geinke bai:  
“Guriak egin dau”!
6. Iñauteriak urtero  
ospatzen ditugu bero;  
askoz pozago urtean sarri  
etorri ezkeru.  
Zer ganadu ta jenero  
daikegu ortik espero?  
Orduan ez da dieta ta miñik,  
zenbat guzurtero!

7. Betoz mila iñauteri,  
osatzeko ainbat eri...  
ta ikusiteko kalean doan  
ainbeste komeri.  
Gero bateko aberi,  
eta besteko miseri;  
santu ta santa, ora pro nobis,  
ai, lagundu neri.
8. Jolas ta dantzak jaietan,  
au diñotsuet benetan;  
min apurtxo bat merezidu dau  
azur-mamiñetan.  
Egin ez bazan gaztetan,  
egin larogei urtetan;  
Aita San Pedro barrezka dago  
goiko zeruetan.



39

AITITA-AMAMAK KANTARI

1. A, a, a,  
aitita ta amama,  
alkartu eta kanta,  
auxe da gure txanda,  
a, a, a, auxe da gure txanda.
2. E, e, e,  
astegun ta igande,  
gu erromeri zale,  
betoz asko ta merke,  
e, e, e, betoz asko ta merke.
3. I, i, i,  
lan ta ardurak itxi,  
jubilatzen ikasi,  
al dan ondoen bizi,  
i, i, i, al dan ondoen bizi.
4. O, o, o,  
atxurrari adio,  
jaiari amodio,  
a ze erremedio!  
O, o, o, a ze erremedio!
5. U, u, u,  
urte batzuk pillatu,  
ta nintzan jublatu,  
baita espabilatu,  
u, u, u, baita espabilatu.

6. A, a, a,  
luzaro bizi gura,  
izan nai ez agura,  
kokotian azkura,  
a, a, a, kokotian azkura.
7. E, e, e,  
umea da promesa,  
ta gaztea amesa,  
zarra, barriz, pobreza,  
e, e, e, zaarra, barriz, pobreza.
8. I, i, i,  
Ikusi ta ikasi  
kutsillo ta jimnasi,  
orain karreran asi...  
i, i, i, orain karreran asi.
9. O, o, o,  
gitxi baiña sarri lo,  
ta bizi naz trunkilo,  
neu naz ni petrikilo,  
o,o,o, neu naz ni petrikilo.
10. U, u, u,  
zarçuta, tximurtu,  
eta aizea samurtu,  
beste danak laburtu,  
u, u, u, beste danak laburtu.



11. A, a, a,  
danak nai, daukaguna,  
iñok ez, dakiguna,  
au komeri astuna!  
A, a, a, au komeri astuna!
12. E, e, e,  
mosutxo baten truke,  
datorkuz txanpon eske,  
gero: ikusi arte!  
E, e, e, gero ikusi arte!
13. I, i, i,  
dana ez da zientzi,  
obe da pazientzi,  
onena kontzientzi,  
i, i, i, onena kontzientzi.
14. O, o, o,  
zartuta, kilikolo,  
baiña ez nok kokolo,  
argi iabilk Martolo,  
o, o, o, argi iagok Martolo.
15. U, u, u,  
au nire testamentu:  
izen ona mantendu,  
daukazunaz kontentu,  
u, u, u, daukazunaz kontentu.

16. A, a, a,  
a, e, i, o, u, ta a,  
beti olan izan da,  
ez atera demanda,  
a, a, a, ez atera demanda.
17. E, e, e,  
e, i, o, u, a, ta e,  
ekin gogor jo ta ke,  
eutsi beea jota be,  
e, e, e, eutsi beea jota be.
18. I, i, i,  
i, o, u, a, e, ta i,  
guk geuriari eutsi,  
naiz anka biak autsi,  
i, i, i, naiz anka biak autsi.
19. O, o, o,  
o, u, a, e, i, ta o,  
gaur atzo baiño obeto,  
ta biar ikusteko,  
o, o, o, ta biar ikusteko.
20. U, u, u,  
u, a, e, i, o, ta u,  
txarto esanak parkatu,  
atostean sakatu,  
u, u, u, atostean sakatu.

**IV**  
**ZARBARRITUAK**

ZATOAZ ETA BIZI ZAITEZ

1. Urte geiago bizi nai dogu,  
nor ez da orren egarri?  
Sekretotxo bat badogu, baiña  
ezetz beingoan igarri!  
Betoaz urte geiago,  
bai eta beteago;  
zelan leiken zarra-barri...  
Orra zelango laguntza ona  
“Bizian gorak” ekarri.
2. Bizibidean danok nai dogu  
bizi artuemonian,  
are geiago bat zartzaroan  
bakar xamar dagonian.  
Ona “Bizian gora”  
datorkizu ondora,  
gaur borondate onian.  
Lagunartean biziko zara  
al leiken zorionian.
3. Jubiladu bat, kristau-bizitzan  
ezin leike jubilatatu,  
argi gorritan ez gelditzeko  
ez zimendu, ez teillatu.  
“Bizian goran” sartu,

- talde baten alkartu  
eta laguntza billatu.  
Eta Jesusek aitatzen ditun  
ondasun onak pillatu.
4. Ni jubilatatu bat nazala-ta,  
dana ete jat amaitu?  
Bizitz-atal au zertarako da:  
ausnar egin ta gogaitu?  
Zer da erretirua,  
buruari tirua?  
Onek arritu al zaitu?  
“Bizian goran” martxan sartuta  
azkenerarte jarraitu.
5. Sasoi batera eldu ezkerro,  
gatx danak datoz batera,  
gorputzezkoak asko dirala,  
arimazkoak gaiñera...  
Nai badozu osatu  
ta barrua gozatu,  
“Bizian gora” aukera:  
gatxik gatxena osatzekorik  
bakarrik bat: JESUS BERA.

6. Mundu barrian noraezean  
ortxe baztarran jota,  
aitita-amamak sentitzen dabe  
egundaiñoako porrota.  
Ene adiskidea,  
artu salbabidea  
eta bildur orreik bota;  
“Bizian goran” salbauko gara  
geutzat jarrita dago-ta.



“BIZIAN GORA” KO DOTRIÑAK

1. “Bizian goran” nabil  
zazpi urte kasi,  
ona garbi esanda  
zer dodan ikasi:  
Au ezin da, aixkide,  
diruz irabazi,  
“Aitearen” eginda  
bear dozu asi.
2. Emen ikasten dana  
da bizi izateko,  
eta egin bear da  
umeen antzeko.  
Iñor ez gara gauza  
ezer egiteko,  
bakarrik Jaunaren zain  
zabal egoteko.
3. Au da beste gauza bat  
ikasi dodana:  
oso laburra dala  
bakarreko lana.  
Berez zabaltzen gara  
bat besteagana,  
gogoz jasoz alkarri  
entzun ta esana.

4. Irugarrena auxe da  
eta ez da gitxi:  
beti bear dogula  
etenbarik bizi.  
Beerantza egin arren  
bizitzari eutsi;  
ainbeste aukera on  
galduten ez itzi.
5. Munduak jartzen deusku  
ainbeste barrera,  
baiña Jainkoa lagun  
jo beti aurrera!  
Pentsamentu illunak  
bota baztarrera,  
ez da inoiz amaitzen  
zintzoen karrera.
6. Beti da gauza gitxi  
pertsona bakarra,  
eta askoz gitxiago  
baldin bada zarra...  
Orregaitik daukagu  
alkarren bearra,  
danok alkartu eta  
or dago indarra.

7. Gauzarik ederrena  
ikasitakoa:  
“Aitarik onena da  
gure Jaungoikoa”.  
Orrek aldatzen deusku  
bizitza osoa,  
len garratz astun zana  
gaur bigun goxoa.
8. Beti bizi gura ta  
ezin disimula,  
betiko bizi ori  
egarri dogula.  
Jainkoak maitez zaindu  
ta eutsi daiskula,  
erdu, ez jatzu damu  
izango sekula!



KRISTAU JUBILATUENTZAT LOTERIA

JUBILATUOK, ENTZUN

GAURKO BARRI ONA:

“BIZIAN GORA” N AURKITU DOGU  
GURE ZORIONA.

1. “Bizian gora” zer dan  
jakin nebanean,  
barruan sartu nintzan  
bai zorionean!  
Ainbat aitita-amama  
alkartasunean,  
eurekin zoriontsu  
naz gaur egunean.
2. Noizean bein daukagu  
alkarte-batzarra,  
danen gaiñetik au da  
lenengo bearra.  
Otoitzez biztuten da  
Espiritu-garra,  
ez da errez igarten  
nor dan gazte, zarra.
3. Bakarrian nenbillen  
norezian larri,

Jaungoikoak ninduen  
onuntza ekarri.

Gaur umorez bizi naz  
esango dot sarri:  
etxean ta auzoan  
deustie igarri.

4. Jubilatuta gero:  
“Nireak egin dau”!  
Ezertarako ez dan  
aguretxo koitau...  
Gaur lanpetuta nabil  
mutillak, zer dok au!  
“Bizian gora”k martxan  
barrero jarri nau.

5. Beti izan naz fededun  
eta katoliko,  
baiña bardin izan deust  
zartain naiz lapiko...  
Ementxe bixkortu naz  
fedean betiko,  
ezergaitik be au nik  
ez neuke itziko.

6. Ez neban uste Eleiza  
nire sendi zanik,  
abadea lez neu be  
Eleiza nintzanik.  
Gaur maite dot Eleiza  
neure ama izanik;  
leku ta ardura batzuk  
badodaz bertan nik.
7. Gauza on asko dira  
gaurko eta lengo,  
“Bizian gora” neuke  
jarriko lenengo.  
Zelan esan neike au  
pozik ez banengo?  
Ederrena zerua,  
auxe da urrengo.
8. “Bizian gora” doa  
gero ta gorago,  
gu ikusita, ori  
agirian dago.  
Prest nago jokatzeko  
nor bizi pozago:  
musean balitz, joko  
neuskizu ordago!


43

KRISTAU JUBILATU GAIXO BATEN  
BIOZKADAK

1. Ementxe nago gaixorik,  
ezer ez daukat osorik  
ta ezin dot artu lorik.  
Zu, Jesus Jauna, egon nirekin,  
ez da zure antzekorik.  
Otoi dagitsut gogotik  
nire gelako zokotik:  
ez alde nire ondotik.
2. Gorputza miñez batetik,  
gogoa larri bestetik  
ta ezin alde emendik.  
Jesu maitea, ikusten zaitut  
zintzilika kurutzetik:  
aska naizu illunpetik,  
eroan zeure atzetik,  
Zeuk gura dozun bidetik.
3. Eguna luzea bada,  
luzeago oi da gaba,  
amaibakoa ez bada.  
Onezkero ni, mundu onetan  
geienbat naz neke, traba;  
nai badozu emon galga,  
eta joko dot, al bada,  
zure Etxeko aldaba.

4. Etzun naiz jesarri, kantza;  
ibili naita, balantza;  
sarri soinubako dantza...  
Zugana nator, laguntza-eske,  
Zugan daukat segurantza.  
Banoatzu Etxerantza,  
itxaroten zagoz antza;  
Zugaz badot konfiantza.
5. Gaixoaren egoera  
garbi noa esatera:  
nekez gora, berez beera.  
Ene Jainkoa, egin ginduzun  
gizonok zeure antzera:  
gure gogo ta aukera  
eroan euren betera,  
zatoz niri laguntzera.
6. Asko ditut ezagunak,  
banakatxo bat lagunak,  
biotz-zintzo ta bigunak.  
Euroi eskerrak, argitzen jataz  
bakardadeko illunak.  
Oneik dira arduradunak,  
Zeuk bialtzen dituzunak  
gozaten gure egunak.

7. Au poza, datorrenean  
lagun bat gogo onean  
ta egon aldamenean!  
Gure ordeze Zeuk ordaindu, Jauna,  
gaixo danon izenean:  
zaindu bide zuzenean  
eta gero azkenean  
sartu zorionean.
8. Ainbeste gau eta egun,  
ainbeste oiñaze astun  
eta zer irabazten dogun!  
Gure aienak eta otoitzak  
ez ete dago nok entzun?  
Eskerrak guk Zeu zaitugun  
danen Nagusi dan Lagun;  
Zurekin gara txapeldun!



**JARRI TENTE, LAIKOA!**

1. Ez praille ta ez abade,  
iñor ez da Eleiz-jabe;  
Jesus bakarrik da Eleizaren  
oiñarri, zutabe.  
Ainbat dira laiko trebe  
or prestatzen etengabe;  
kristau-Eleizan ardura osoz  
jokatu nai dabe.
2. Aita Santu eta gotzain,  
praille, abadeak be bai;  
mailla berean dira laikoak  
Eleizaren osagai.  
Badira grazi ta doai  
Jaunak emonak nolana;  
gaiñerakoan Eleiz Amagan  
danok gara anai.
3. Entzun Jesus Maixuari:  
“Nagusi da serbitzari”:  
kristau dala ta, serbidu bear  
batak besteari.  
Doaiak dira ugari,  
kontu, asko daukanari!  
Oker jokatuz, egiten jako  
kalte Eleizari.

4. Eleiz Amaren pobreza:  
iñork jokatu nai eza.  
Goitik agintzen, dana konpontzen  
geienbat apeza...  
“Zuok kristauok, erreza  
eta ondo entzun meza.”  
Bakoitza bere lekuan jartzen  
ez da lan erreza.
5. Gure Eleizaren indarra  
ez da txintxin parraparra;  
kristau bakoitzak bere lekuan  
emon bei paparra.  
Kargu, titulu ta abarra  
mundukerizko gangarra...  
Lenengo danok daukagu kristau  
on izan bearra!
6. Goratu daigun Jainkoa!  
Baiña au be ez da naikoa;  
mundu-barruan prestau bear da  
pobrentzat maikoa.  
Kristau, aste ta jaikoa,  
bizi garan garaikoa;  
besteak beste Eleiz zara ta  
jar tente, LAIKOA.



AITA PATXI LAGUN

1. Gaur AITA PATXI gogora daigun  
Pasiotar euskalduna,  
santua dala gure Eleiz Amak  
garbi autortzen deuskuna.  
Zarrentzako ta gaixoentzako  
izan zan biotz-biguna,  
euren ondoan emonaz sarri  
pozik gaua ta eguna.  
Baztar askotan deitzen deutsoe:  
“Zar ta gaixoen laguna”.
2. Gaixo ta zarrei laguntzea zan  
Aita Patxiren amesa,  
Jesus onari eginda eukan  
euren aldeko promesa.  
Euren ondora eldu orduko,  
berba samur ta erreza,  
erruki aundiz agertu nairik  
Jesus ez dala jueza;  
etxeratuta, kezka bat beti:  
geiago lagundu eza.
3. Txori-erbien atzetik azkar  
ibilten da kazaria,  
Aita Patxi au askoz pozago  
gaixoen serbitzaria.  
Sakramentuak fedez emonda


- zer bake ta pozkaria!  
Aita Patxigaz etorkela-ta  
Jesus ta Ama Maria;  
gaur Aita Patxi goraldtu geinke:  
“Zar-gaixoen Zaindaria”.
4. Diruzalea ibili oi da  
egarriz ondasun billa,  
Aita Patxi or gaixoak zaintzen  
egarriago dabilla.  
Oinez denpora galtzen dala-ta,  
estopean berebilla...  
Sartu ta beingoz errezu baten  
etenbako iskanbilla;  
Errosarioz ordaintzen eutsan,  
benetan praille abilla!
  5. Nundik etozan Aita Patxiren  
ainbeste arineketa?  
Jesus zar ta gaixoen alde  
beti ikusten eban-eta...  
Kalbarioko Jesusen garrez  
eukan biotza erreta.  
Orren testigu argiak dira  
Basurto ta Kurutzeta;  
obe geiagok bardin bageunka  
biotza eta kasketa.



6. Bardin joango zan txabolara  
eta bardin jauregira,  
geienbatean, an-or-emengo  
urruneko baserrira.  
Bekokietan ikusten eutsen  
Jesus Jaunaren dizdira.  
Lege guztiak erabiliaz  
Ebanjelioko neurrira;  
Jas, Aita Patxik egindakoak  
ai, entzutekoak dira!
7. Zarra zar zan ta gaixoa gaixo,  
beste ezerk ez dau balio;  
bere laguntza eskeintzekoan  
ez zan iñor arerio.  
Besteak beste, lenengo au da:  
Jesusen Ebanjelio,  
Ak Kurutzean agertzen dauan  
parkamen ta amodio;  
Ari begira jokutzen eban  
eta a zer erremedio!
8. Geure arteko santu bat zelan  
ezagutu barik bizi?  
Gaixo ta zarroi ondo jatorku  
orrelako "aitabitxi".  
"Bizi ziñala, gaixo ta zarrak

- ez ei eutsuen zor gitxi;  
orain zeruan zagozan orrek  
ez bertanbeera gu itzi;  
guk beti zeugaz kontatzen dogu  
gure lagun Aita Patxi!"
9. Mundu arroak zorotzat bota  
eta zinduzan baztatu,  
baiña gaixoak ta baztartuak  
zeu jainko-gizontzat artu.  
Jesus Beraren lekuan gagoz,  
ez dogu zetan kaxkartu;  
O Aita Patxi, zeure antzeko  
izan gaitezán, indartu;  
gero zeruan, gazte ta sendo  
zeugaz gaitezán alkartu.
10. Pelitzisimo deunak deituta  
bere laguntzat Deustura,  
bingoan asi jakozan eltzen  
gaixo ta zar zenbat-gura.  
Aita Patxik or ipinten eban  
jausten jakona eskura;  
amaika milla osatu ziran,  
agur gaixo ta tristura!  
Or santu biak gaixoen alde  
eginda dauken postura.

11. Gaixo ta zarrei laguntzea zan  
Aita Patxiren pozgarri,  
euren ondoan egotea zan  
santu onen ezaugarri.  
Ortarakoxe "Bizian gora"  
dogu emen martxan jarri;  
iñor baiño len, bear zaitugu  
zartzaroko lagungarri;  
gaixo ta zarrok autortzen dogu:  
"Aita Patxi santu barri".



12. Azken orduan entzun neutsana  
nai neuke emen kontatu,  
gaixo ta zarrak jakin dagien  
ta bear dan lez jokatu:  
"Ara zerura joan naitenean  
nik badakit zer eskatu:  
gaixoen lagun jarraitu nai dot,  
eta ez eidazu ukatu:  
gaixo ta zarrak izan dagien  
norengana urreratu".

ZARBARRITUAK

1. Urteen urtez naz zarra,  
ez dogu ain gauza txarra;  
gazterik gura ez dauanak il,  
dau bide bakarra.  
Gaur gazte jente azkarra,  
emen joten dau baztarra:  
jakiñak jakin, egiñak egin,  
makurtu bearra.
2. Loikeritik garbituak  
eta gotik argituak,  
orra gizaki biotz-gazteko,  
bizibarrituak.  
Jaunaren Espirituak  
ditu orren merituak;  
aitita-amama asko ditugu  
gaur zarsarituak.
3. Jubilatu zarbarriak  
baditu ezaugarriak:  
Jaunaren billa jartzen dau beti  
bere egarriak.  
Beti erne belarriak,  
Jaunari adi jarriak:  
ez deutso utsik emon Jaunagan  
daukan oiñarriak.

4. Bera dago erdi illa  
eta errenka dabilla;  
pobre ta gaixo nori errukiz  
on egingo billa.  
Ez dau zartzaro trankilla,  
baiña pozezko pilpilla;  
Jesus Maixuak damotsoz grazi  
eta doai pillla.
5. Kurutzea bai astuna,  
norbera makal biguna;  
fedea-argitan ezagutu dau  
ondoan Laguna.  
Agur zartzaro illuna  
ta bakardade ituna!  
Zarbarritua kurutzean da  
batez be ezaguna.
6. Bere kristau sinismenez  
bizi da itxaropenez,  
sarri entzun dau deitzen deutsala  
Jesusek izenez.  
Gizaki lez sarri penez,  
baiña aurrera kemenez;  
zargaztetuak merezi dabez  
txaloak omenez.

7. Zarbarrituen taillerra  
eta lantegi ederra:  
“Bizian gora” dogu guretzat  
Jaunaren eskerra.  
Or garbitzen da ugerra  
eta bixkortzen alperra;  
aukera oneik ez onartzea  
geuretzat okerra.
8. Umetxoaren antzera,  
Aitatxoren esanera;  
zarbarrituak beti artzen dau  
Jesusen jarrera.  
Bizitzako gorabeera  
eta eriotza bera:  
“Aitak ondoen daki-ta, betor  
Beraren naiera”.


GURE ERRIKO NAGUSIAK

1. Jubilatua gara gu,  
esan bearra daukagu:  
irurogeitaz urtetik gora  
pillatu bai jaku.  
Zergaitik au ezkutatu?  
Zartzea ez da pekatu...  
Au txarra bada, ia nok deuskun  
obea asmatu?
2. Mendian jaio ta azi,  
antxe ogia irabazi;  
gazte denporan maiteminduta  
alkarrekin bizi.  
Umeak sortu ta azi,  
amarrekotxo bat kasi;  
eurak mantendu eta zaintzea  
bada naiko grazi.
3. Ez daukagu zientzirik,  
bai naiko esperientzirik;  
urteak barik, ez da zentzunik,  
ez pazientzirik.  
Ez da izan lizentzirik,  
ezta komenientzirik;  
konformidadez dagonak ez dau  
falta erentzirik.



4. Badakigu zer dan eza,  
iñortxo ez da markesa;  
beti izan dogu ago bete bat,  
arto edo tremesa.  
Sarri ordu aldrebesa,  
bear egin ta erreza;  
eskerrak goian dagon begira  
guztion jueza.
5. Asaben lege zarrian,  
alan da Euskalerrian,  
Jesukristoren dotriña garbiz  
modu ederrian.  
Sarri dana bearrian,  
baiña ez lege txarrian;  
ondrautasuna ez dogu galdu  
bide baztarrian.
6. Edadez goaz aurrera,  
eta ezin joan atzera;  
edadetuok, batu gaitez  
alkarren artera.  
Ekin ezker batera,  
lagun zintzoen antzera,  
Gure Jainkoak emongo deusku  
laguntza gaiñera.

7. Guk emon dogu geunkana:  
osasun, bizi ta dana...  
Gure Jainkoak bedeinkatu bei  
egin dogun lana.  
Orain batu alkargana  
ta ondo pasau al dana;  
gero Jainkoak emon daiskula  
zeru eder bana.
8. Gaztetzako aolkua  
gu zarrok emondakua:  
eurak obetu daiela gure  
munduko lekua.  
Au beti da txandakua,  
gero dator betikua;  
alkar bear-ta, emon daiogun  
alkarri eskua.






“BIZIAN GORA” ANGOSTORA

1. - Maritxu, artu eizu  
biotzez egunon!  
- Bartolo, bardin zeuri  
artu-ala emon.  
- Kurtsoaren azkena  
dogu gaur Angoston  
- Aprobau ei dogu-ta  
alkarri zorion!
2. - Fika eta Mungia,  
bardin Zamudio  
- Larrabetzu, Usansolo,  
aupa Elorrio!  
- Busturi ta Gernika  
pozetan jario...  
- Anaitasun onek gaur  
zer ez dau balio!
3. - Zornotza ta Durango,  
Izurtza, Mañari  
- Besarkada bat danoi,  
baita Markiñari.  
- Olako egun onak  
betorkuz ugari  
- Beingoan jartzen gara  
zarrok be kantari.

4. - Meza, Errosario,  
gero dantza, zantzo  
- Jubilaturik gagoz  
baiña ez ain mantzo...  
- Danetik jaten dogu  
porru ta barbantzo  
- Kanpoan jolas eta  
etxean deskantzo.
5. - Maritxu, pozik gatoz  
alkarren ondora  
- Bartolo, ez al zagoz  
gaur nigaz gustora?  
- Igarri barik doa  
ainbeste denpora  
- Ondo asmauta dago  
bai “Bizian gora”.
6. - Bai izan dogula gaur  
egun bat betea  
- Biar balitz beste bat  
a zer suertea!  
- Orra pratikan zer dan  
kristau izatea  
- Alkarri lagunduaz  
ondo ibiltea.

7. - Maritxu, aprobatu  
al dozu urtea?  
- Bartolo, ipini dot  
nik neure partea  
- Aprobatu ezean  
bigarren bueltea  
- "Bizian goran" ez da  
artuten "katea".
8. - Aurrera goaz beintzat  
trikili-trakulu  
- Felix ta Bittor dira  
guretzat akulu.  
- Ta beti dago norbait  
laguntzat makulu  
- Alkarri laguntzea  
da naiko titulu.
9. - Maritxu, zeu al zara  
taldeko gidari?  
- Laguntzeko prest nago  
bear dauanari  
- Jaunak emon daizula  
laguntza ugari  
- Laguntzeko almena  
bada naiko sari.

10. - Egiñak egin eta  
au errematia  
- Azkenean aurrera  
plast txokolatia...  
- Maritxu, ez ete da  
praillien tranpia?  
- Praille-monja ederrak  
gu lako jentia!



11. - Danok sentitzen gara  
aixkide, ezagun  
- “Bizian goran” Jaunak  
beingoz batu giñun.  
- Alkarren alde otoi  
kantuz egin daigun  
- Angostoko Amatxo  
daukagula lagun.
12. - Seme-alabok gatoz  
Amatxo Zugana  
- Zeure esku jarriaz  
egin dogun lana.  
- “Bizian gora” zaindu,  
Angosto Ama  
- Agur ta laster arte,  
eutsi patxo bana.

## AURKIBIDEA

Zuretzat .....	7
I. GEUK IKUSI-IKASIAK .....	11
1. Gure etxea .....	12
2. Eubako alkar-egunak .....	15
3. Urrezko ezteguak .....	18
4. Kristau jubilatut baten jakituria .....	21
5. Beti ikasten .....	25
6. Aitita-amamak eta illobak .....	31
7. Aitita-amamen agurra .....	34
8. Aitita-amamen eskolan .....	36
9. Nai baino gitxiago, al baino geiago .....	40
10. Bizitzako gaillurretik begira .....	43
11. Aitita-amamak urte barrietan .....	46
II. GURE KREDOA .....	51
12. "Bizian gora" .....	52
13. Gure Sakramentua .....	54
14. Aitita-amamen ospakizunak .....	57
15. Jesukristo gure Jauna .....	60
16. Jainkoaren egarri .....	65
17. Jubilatuen Kurutzbidea .....	67
18. Aita Jaunaren aurrean .....	73
19. Nire zartzaroko lagun zaitut, Jauna .....	77
20. Bideko neke-lorrak .....	83
21. Geroko itzaropenez .....	86
22. Ze kredo-modu da au? .....	89
23. Lardestik gatoz .....	93
24. Barri Onaren profeta .....	97
25. Aititaren testamentua .....	101
26. Billa ta billa .....	104

III. OLGETAN-BENETAN.....	107
27. Aitita-amamak erromerian .....	108
28. Bai ta ez, ez ta bai .....	111
29. Santuen protestak .....	113
30. Bat, bi, iru, lau.....	116
31. Gora jubilatuen erreboluziñoa!.....	118
32. Au dok! Au dok!.....	121
33. Gure komeriak .....	123
34. Agur aitita eta amama! .....	126
35. Au da bizimodua!.....	128
36. Zuk iso eta nik arre .....	132
37. Aitita-amamen zereko zerak.....	136
38. Karnabaletan .....	141
39. Aitita-amamak kantari.....	144
IV. ZARBARRITUAK.....	149
40. Zatoz eta bizi zaitez .....	150
41. "Bizian Gora"ko dotriñak. ....	153
42. Kristau jubilatuentzat loteria .....	156
43. Kristau jublatu gaixo baten biozkadak.....	159
44. Jarri tente, laikoa! .....	162
45. Aita Patxi lagun .....	164
46. Zarbarrituak.....	170
47. Gure erriko nagusiak .....	173
48. "Bizian gora" Angostora.....	176



**Aurkibide au kaseteko bertso-doinuari dagokio.**

## I. GEUK IKUSI-IKASIAK

1. Gure etxea .....	1
2. Eubako alkar-egunak .....	2
3. Urrezko ezteguetan .....	4
4. Kristau jubilatu baten jakituria .....	3
5. Beti ikasten .....	25
6. Aitita-amamak eta illobak .....	13
7. Aitita-amamen agurra .....	7
8. Aitita-amama eskolan .....	6
9. Nai baino gitxiago, al baino geiago .....	3
10. Bizitzako gaillurretik begira .....	8
11. Aitita-amamak urte barrietan .....	9

## II. GURE KREDOA

12. Bizian gora .....	10
13. Gure Sakramentua .....	11
14. Aitita-amamen ospakizunak .....	2
15. Jesukristo gure Jauna .....	14
16. Jainkoaren egarri .....	1
17. Jubilatuen Kurutzbidea .....	13
18. Aita Jaunaren aurrean .....	3
19. Nire zartzaroko lagun zaitut, Jauna .....	10
20. Bideko neke-lorrak .....	15
21. Geroko itxaropenez .....	2
22. Ze kredo-modu da au? .....	6
23. Lurdestik gatoz .....	14
24. Barri Onaren profeta .....	14
25. Aititaren testamentua .....	13
26. Billa ta billa .....	16

## III. OLGETAN-BENETAN

27. Aitita-amamak erromerian .....	17
28. Bai ta ez, ez ta bai .....	26
29. Santuen protestak .....	18
30. Bat, bi, iru, lau .....	19
31. Gora jubilatuen erreboluziñoa! .....	20
32. Au dok! Au dok! .....	21
33. Gure komeriak .....	3
34. Agur aitita ta amama! .....	22
35. Au da bizimodua! .....	24
36. Zuk iso eta nik arre .....	18
37. Aitita-amamen zereko zerak .....	4
38. Karnabaletan .....	14
39. Aitita-amamak kantari .....	23

## IV. ZARBARRITUAK

40. Zatoz eta bizi zaitez .....	3
41. "Bizian Gora"ko dotriñak .....	24
42. Kristau jubilatuentzat loteria .....	22
43. Kristau jubilatatu gaixo baten biozkadak .....	1
44. Jarri tente, laikoa! .....	14
45. Aita Patxi lagun .....	5
46. Zarbarrituak .....	14
47. Gure erriko nagusiak .....	14
48. "Bizian gora" Angostora .....	25

## Aurkibide au "Zu ta ni Biok" liburuan agertzen diran gaietako dagokio.

## I. GEUK IKUSI-IKASIAK

1. Gure etxea .....	15
2. Eubako alkar-egunak .....	4
3. Urrezko eztegetan .....	3
4. Kristau jubilatatu baten jakituria .....	22
5. Beti ikasten .....	42
6. Aitita-amamak eta illobak .....	16
7. Aitita-amamen agurra .....	22
8. Aitita-amamen eskolan .....	26
9. Nai baino gitxiago, al baino geiago .....	48
10. Bizitzako gaillurretik begira .....	20
11. Aitita-amamak urte barrietan .....	29

## II. GURE KREDOA

12. Bizian gora .....	54
13. Gure Sakramentua .....	41
14. Aitita-amamen ospakizunak .....	36
15. Jesukristo gure Jauna .....	37
16. Jainkoaren egarri .....	39
17. Jubilatuen Kurutzbidea .....	46
18. Aita Jaunaren aurrean .....	32
19. Nire zartzaroko lagun zaitut, Jauna .....	50
20. Bideko neke-lorrak .....	30
21. Geroko itxaropenez .....	31
22. Ze kredo-modu da au? .....	3
23. Lurdestik gatoz .....	33
24. Barri Onaren profeta .....	40
25. Aititaren testamentua .....	17
26. Billa ta billa .....	53

III. OLGETAN-BENETAN

27. Aitita-amamak erromerian .....	28
28. Bai ta ez, ez ta bai .....	12
29. Santuen protestak .....	3
30. Bat, bi, iru, lau .....	36
31. Gora jubilatuen erreboluzioa!.....	36
32. Au dok! Au dok! .....	35
33. Gure komeriak .....	27
34. Agur aitita ta amama! .....	21
35. Au da bizimodua!.....	4
36. Zuk iso eta nik arre .....	47
37. Aitita-amamen zereko zerak.....	27
38. Karnabaletan .....	28
39. Aitita-amamak kantari .....	35

IV. ZARBARRITUAK

40. Zatoz eta bizi zaitez .....	25
41. "Bizian Gora"ko dotriñak .....	5
42. Kristau jubilatuentzat loteria .....	6
43. Kristau jubilatutako gaixo baten biozkadak.....	7
44. Jarri tente, laikoa! .....	10
45. Aita Patxi lagun .....	23
46. Zarbarrituak.....	36
47. Gure erriko nagusiak .....	2
48. "Bizian gora" Angostora.....	33